



Unibertsitate Masterra Bigarren Hezkuntzarako
Irakaskuntzan

Geografia eta Historia

**Bigarren Hezkuntzarako iturri berrien bila.
Karlismo herrikoira hurbilpen bat
bertsolaritzatik**

Ikaslea: Pablo Berrizbeitia Saenz

Tutorea: César Layana Ilundain

Kurtsoa: 2016/2017

AURKIBIDEA

Laburpena eta hitz gakoak	3
Sarrera	4
Marko teorikoa	7
Marko epistemologikoa	7
Marko kurrikularra	18
Marko didaktikoa	25
Esku-hartze fasea	36
Sarrera	36
Lehen galdetegia	37
Lehen galdetegiari buruzko ondorioak	45
Bertsoetan oinarritutako esku-hartzea. Bigarren galdetegia	49
Gaiaren testuingurua eta ikasleentzako egokitzapena	49
Bigarren galdetegia	52
Bigarren galdetegiari buruzko ondorioak	59
Ondorio orokorrak	62
Bibliografia	66
Eranskinak	68

LABURPENA

Lan honen helburua bertsoek Bigarren Hezkuntzan iturri historiko bezala izan dezaketen potentzialitate didaktikoa aztertzea da. Bertsolaritza euskal kultura herrikoiaaren manifestazio bat dira. Ezaugarri honek bertsoak herri mentalitateak aztertzeko tresna egokiak egiten ditu, eta horregatik uste dugu Bigarren Hezkuntzan erabiltzeko iturri aproposak direla, gure ustez bertan, maizegi alboratzen baitira klase apalenen esperientzia historikoak. Uste dugu honelako iturriek ikasleei Historia aberatsago bat irakastea erraztuko luketela. Honez gain, bertsoak lehen mailako iturriak dira, eta, hainbat adituk diotenez, hauen erabilpen egoki bat oso onuragarria izan daiteke ikasleentzat. Besteak beste, lehen mailako iturriekin lan egitean, ikasleek Historiaren kontzeptio interpretatibo bat eta, oro har, jarrera kritikoago bat garatu dezakete.

Bertsoen balizko potentzialitate hau aztertzeko ezinbestekoa izan da gai bat aukeratzea berau bertsoen bidez eta galdetegi batzuen laguntzaz ikasleekin landu ahal izateko. Guk aukeratu dugun gaia lehen karlismo herrikoiaaren motibazioa izan da. Hau historialarien artean gaur egun eztabaida sortzen duen gai bat da, ez baitago adostasunik karlista izateko hainbat pertsonen izan zituzten arrazoiei buruz.

Beraz, iturri berezi batzuen potentzialitatea azterteaz gain, lan honek gaur egun ikertzaileen artean irekita dagoen gai bat ikasgeletara eramango du, ikertzaileen eta ikasleen munduak hurbilduz.

Hitz gakoak: Bertsolaritza, lehen mailako iturriak, karlismo herrikoia, motibazioak, Bigarren Hezkuntza.

SARRERA

Lan honen helburua bertsoak klasean erabili daitezkeen iturri historikoak diren ala ez aztertzea da. Honetarako lanaren bigarren blokean azaldu eta landuko ditugun 55 ikaslek egindako bi galdetegi erabiliko ditugu, praktiketako bigarren zatia aprobetxatuz pasatu ahal izan genituenak. Galdetegi hauek azaldu aurretik, ordea, hauei eta lanaren zentzuari euskarri teoriko bat emateko marko teoriko bat egingo dugu. Beraz, lan honetan teoria eta praktika uztartuko ditugu, lanaren azken partean azalduko ditugun ondorioak ikasleek egindako galdetegietan oinarrituko baitira, baina gure analisisen oinarrian marko teorikoan landutako gai eta ikuspuntuak egongo dira.

Bertsoak ahozko iturriak edo ahozko iturrietatik eratorritako iturriak izan daitezke, eta, gure ustez, potentzialitate handia dute, bai didaktikan eta baita ikerketa historikoan, herriaren zenbait ikuspuntu aztertzerako orduan. Bertsoak tradizio kultural herrikoi bat dira, eta, ezaugarri honek herri xehearen pentsamendua ikertzeko tresna apropos bat bilakatzen ditu.

Batez ere XX. mendearen bigarren erdian bertso zaharren bilketan egin den lan eskergari esker, gaur egun iturri mota hauen bilduma handiak ditugu gure eskura. Hauek gai eta garai askori buruz ikertzeko aukera ematen dute, baina lan honetan gai konkretu bat aukeratu behar genuen lehen aipatutako helburua lortzeko, eta hau lehen karlismo herrikoia motibazioa izan da. Geroago azalduko dugunez, gai hau oraindik irekita dagoen gai bat da, eta, beraz, iturri berritzaileen erabilera nahitaezkoa da, gure ustez, honen ezagutzan aurre egiteko.

Honez gain, lanarekin hasi baino lehen bagenituen beste hipotesi batzuk. Gure ustez, bigarren hezkuntzan karlismoaren gaia gabezi batzuekin lantzen da, eta horien artean, noski, guk aztertzen dugun motibazioa dago. Gure ustez, bertsoek ekarpen interesgarri eta aberasgarriak egin ditzakete gai honen inguruan. Bestalde, logikoa iruditzen zitzaigun, iturriek gaiaren lanketan ekarri ditzaketen onurak hobeto ikusteko, berau aukeratzeko orduan gure ustez tratamenduan gabezi batzuk dituen gai bat aukeratzea. Batez ere arrazoi horiengatik egin dugu hautu hau. Hutsune hauetako batzuk zeintzuk diren eta noraino iristen diren izango da hain zuzen ere lehenengo galdetegiaren helburuetako bat. Jadanik gaiarekin kontaktua izan duten ikasleei galdera batzuk egingo dizkiegu, kontaktu hau eta gero geratu zaizkien ideiak ezagutzeko, edo beste modu batera esanda, gaia nola erakutsi zaien ikusteko. Aukeratu ditugun ikas taldeen adina, beraz, honengatik baldintzatua egon da.

Hasieratik genuen beste hipotesi bat bertsoak orain arte ikasgeletan iturri bezala erabili ez direla (edo behintzat oso gutxitan erabili direla) izan da. Klasean erabiltzen diren iturri tradizionalagoek, zeintzuez geroago hitz egingo dugun, nekez eman dezakete guk landu nahi dugun gai hau modu hain zuzen eta berezian lantzeko aukera, eta, guk uste bezala, bertsoak ez badira iturri bezala erabiliak izan, gai honi eskaini zaion tratamenduak berauek erabilia emango zitzaionaren aldean gabezi batzuk izango ditu.

Gure ustez, eta geroago ikusiko dugunez, zenbait adituren ustez, maizegi bigarren hezkuntzako klaseetan egiten den iturrien erabilerak gaur egungotik desberdina izan beharko luke. Alde batetik, iturrien abanikoa handitu beharko litzateke iturri aberastasun batek interpretazio aberastasun handiago bat ekarri dezakeelako, lehenengoak modu egokian erabiltzen baditugu behintzat. Bestalde, iturri hauek, klasean lantzen diren gaietatik haratago, ikasleari Historiari buruz duen ikuspegia zentzu positiboan aldatzen eta zabaltzen lagundu diezaiokete.

Hasieran aipatu dugun helburu hori betetzeko, bi zati nagusitan banatzen den lan bat planteatu dugu. Lehenengo zatia marko teorikoa izango da, eta hau, aldi berean, hiru ataletan banatuko dugu. Marko epistemologikoan bertsoek iturri bezala duten baliozkotasuna aztertzeke guk aukeratu dugun gaia landuko dugu. Atal honetan, gai hau gaur egun zabalik dagoen gai bat dela frogatzen ahaleginduko gara, honek justifikatuko duelako egin dugun gaiaren hautua, itxita eta argituta dagoen gai bat aukeratzeak ez lukeelako zentzu handirik izango. Gure iturriari buruzko hainbat ezaugarri eta potentzialitate ere atal honetan landuko ditugu.

Ondoren marko kurrikularrean jarriko dugu arreta. Gure gaiak bigarren hezkuntzako kurrikulumean izan dezakeen tokia, eta, beraz, egokitasuna aztertuko dugu, gerora hau aproposa den talde batean galdetegien bidez lantzeko. Ikusiko dugunez, aukeratu dugun gaiak berau kurtso batean baino gehiago lantzeko aukera ematen du.

Marko teorikoarekin amaitzeko, marko didaktikoa aztertuko dugu. Honetan, batez ere, hainbat adituk klasean lehen mailako iturriak erabiltzearen abantailei buruz diotena aztertuko dugu, hori baita, azken finean, lan honetan egingo duguna. Atal honetan, baita ere, didaktika eskola desberdinen arabera eta gure iritziz hezkuntzak eduki beharko luken zentzuaz eta helburuez hitz egingo dugu. Honez gain, gaur egun hezkuntza sistemak dituen hainbat ezaugarriari buruzko kritika eta gogoetak azalduko ditugu, betiere gizarte zientzien esparruari begira.

Esku hartze fasean lan honen alderdi enpirikoa aztertuko dugu. Hau bi ikas talde desberdinetan pasatu genituen bi galdetegiaren emaitzei buruz egin ditugun analisietan oinarritzen da. Galdetegi bakoitzean, galdetegiaren eta galdera bakoitzaren helburuak, aurre hipotesiak eta ondorioak azalduko ditugu.

Lehen galdetegiaren helburu nagusiak ikasleek iturriari eta karlismoaren gaiari buruz dituzten ideia orokorrak ezagutzea izango da. Nolabait esateko, bigarren galdetegiari begira ikasleen ezagutza mailari buruzko lehen hurbilketa bat izango da, azken hau delako lan honi benetako zentzua emango diona eta hasieran planteatu dugun helburu orokorra lortzen lagunduko diguna.

Bigarren galdetegian, beraz, iturriak erabiliko ditugu hauen potentzialitate didaktikoa neurtzeko. Ikasleak galdetegiaren zentzua ondo ulertu dezaten, geroago azalduko dugun egokitzapen pausu batzuk ematea ezinbestekoa izango zaigu hauek galdetegiaren bitartez iturriak landu baino lehen.

Azkenik, bi galdetegietan ateratako ondorioen laburpen txiki bat egingo dugu, eta, amaitzeko, lan honetatik ateratzen ditugun ondorio orokor batzuk aurkeztuko ditugu.

MARKO TEORIKOA

MARKO EPISTEMOLOGIKOA

Esan bezala, lan honen xede nagusia bertsoak geletan errekurtsio didaktiko bezala erabili daitezkeen iturriak direla frogatzea da. Gure kasuan, iturri hauek Lehen Karlistadaren garaian karlismoa babesteko gizarteko klase apalenetako hainbat kidek izan zituzten motibazioetara hurbiltzeko erreminta bezala baliatuko ditugu, gure ustez, bigarren hezkuntzan gai hau (herri xehearen motibazioena) ez baita lantzen beharko lukeen sakontasunarekin eta ezta ere talde honek zenbait gairen inguruan zituen ikuspuntuak kontuan hartuta. Lan honetan planteatzen dugun hipotesiaren arabera bertsoek aportazio interesgarriak egin ditzakete hutsune eta gabezi horiek betetzeko. Horrez gain, uste dugu bertsoak beste garai eta gai askoren inguruan lan egiteko ere baliagarriak izan daitezkeela, eta lan honek beraz, bertsoak historiako klaseetan material didaktiko bezala erabili daitezkeela frogatzea du helburu, guk planteatuko ditugun gai eta garaiez haratago. Geroago azalduko dugun klasean egindako esperientzia praktikoan bertso sail bat klase barrura eraman da hau iturri baliagarria izan daitekeela frogatuz.

Lan honen zentzua justifikatzeko, karlismoaren motibazioen gaia gai ireki bat dela frogatzea beharrezkoa dela uste dugu eta hori izango da, hain zuzen ere, atal honen helburuetako bat.

Egileen arabera, karlismoarekin zerikusia duten beste hainbat gaietan bezalaxe, desberdintasun nabariak daude motibazioen gaia aztertzerakoan. Iritzi desberdin hauek eta sarritan gaia aztertzeko erabili diren iturriek beraien izaerarengatik jarri dituzten mugek nahitaezko isla bat dute historiografian, eta baita ere Bigarren Hezkuntzan, gai hau lantzerako orduan. Motibazio konkretuei buruzko iritziak aztertzen hasi baino lehen, sarrera historiografiko moduan, motibazioen gaiaren inguruan dauden bi postura orokor aipatuko ditugu, biek ekarri dituzten ikuspuntu eta topiko nagusiak aipatuz. Ondoren, bi korrante hauek gainditzten saiatzen ari den hirugarren korrante bat aurkeztuko dugu, karlismoaren berrikuntza historiografikoarena, alegia. Atal honetan ikusiko dugunez, karlismoaren gaia gai konplexu bat da, hainbat azpi-gai eta ikuspuntu sorrarazten dituena.

XX. mendearen erdialderarte, historialariak ez dira modu sakon batean gizarteko behe klaseen ibilbide eta eboluzio historikoaz arduratu. Eric Hobsbawn, Christopher Hill eta E.P. Thompson bezalako historialariek osatutako britaniar historialari marxisten taldea behetik egindako historia lantzen hasi zenean, hainbat gai eta pertsonai berri ikuspegi historiko batetik ikertzeko aukera agertu zen. Interes gai berri hauen artean, klase herrikoien ibilbide historikoa azaltzen zuten motibazioak eta ikuspuntuak egon ziren.

Herri xeheak karlismoa atxikitzeke izan zituen motibazioak ez dira sakonki ikertuak izan duela gutxi arte. XX. mendearen 70eko edo 80ko hamarkadetara arte, karlismoari eta gerrate karlistei buruz historiagileen artean zegoen interpretazio zabalduenak XIX. mendeko historiografia liberalaren ikuspuntuetatik hainbat ideia hartzen zituen¹. Honek ez zion arretarik jartzen herri xehearen motibazioei, interpretazio hau defendatzen zutenek ez baitzuten uste herri xeheak inolako motibazio propiorik zuenik karlismoa defendatzeko. Ikuspuntu hau, historiografia liberalak zabalduetako manipulazioaren topikoarengatik mantentzen zen. Topiko honen arabera (gaur egun oraindik ere nahiko zabaldua dagoena), karlismoaren zuzendariek (eliteek eta elizgizonek) herritarrak manipulatzeko zituzten euren interesak defendatzeko, eta hauek, askotan, ulertu ere egiten ez zuten kausa bat defendatzera bultzatzen zituzten. Honelako interpretazio batekin, sinplea baina salbuespenik gabekoa, ez zegoen tokirik historiagile askoren lanetan karlismoarengatik borrokatu zuten klase apaletako kideen motibazioak aztertzeke. Planteamendu honen atzean, gutxienez bi ikuspuntu ezkutatzen ziren; alde batetik, liberalismoaren ezarpena berez onuragarria zela herri xehearentzat, eta beraz, Iraultza Liberalari aurre egitea irrazionala zela behe klaseetako kideen partetik; bestalde, landa munduaren pertzepzio atzeratua (karlismoa defendatu zuten gehienak landatarrak ziren) hiriaren mundutik (liberalismoak bertan aurkitu zituen partaide gehienak).

Luis Sáenz de Viguera Erkiagak gogoeta interesgarri batzuk egin ditu liberalismoa herri xehearentzat berez onuragarria zenaren ideia horri buruz. Egile honek Walter Benjamin-en ideia batzuk aipatzen ditu, eta bere argumentu guztia esaldi honetatik abiatzen da: “Inoiz ez da kultura dokumentu bat ematen, aldi berean basakeriaren dokumentu bat ez dena”. Honekin, Benjamin-en asmoa Historiara hurbiltzeke distantzia bat ezartzea da. Honen arabera, ez dugu besterik gabe

¹XIX. mendean idatzi ziren obra guztiek (edo ia guztiek) ikuspuntu konprometituak izan zituzten bando batekin edo bestearekin, eta beraz, hauen helburua bietako bat goraiatzea izan zen, errealitatearen irudi desitxuratu bat ematen zutelarik. Oihartzun gehien historiografia liberalak lortu zuen, eta honegatik errepikatu dituzte egile askok manipulazioaren eta fanatismoaren topikoak.

Gazteleratik itzulita lan honetarako. Hemendik aurrera, gaztelerazko artikulua edo liburuen zitak azaltzen direnean, itzulpenak nik eginak izango dira. Batzuetan salbuespenak egingo dira, adibidez XIX. mendeko egileen kasuan, benetan zaila baita hauek erabiltzen duten hizkuntzagarri beraien testuak itzultzea mezua mantenduz.

onartu behar atzean geratu dena (karlismoa, adibidez) izatez basakeria denik, baizik eta horrela kontsideratzen dugula hegemonikoari (liberalismoari) garaipena eman dion prozesu historiko batengatik. Ikuspuntu honetatik, zibilizazioa/basakeria bereizketa pentsamendu aurrerakoi/atzerakoi binomiora eraman daiteke. Operazio honen bitartez, bi mugimenduko operazio bat burutzen ari gara; hasteko, Historiaren kontzepzio teleologiko baten ondorioz, binomio hau orden hierarkizatu batean sartzen dugu, aurrerakoia atzerakoiaren gainditze bat bezala ulertuz; gainera, pentsamendu aurrerakoiaren gailentasunaren naturalizazio bat egiten dugu, hau izan delako biziraun duena. Historiaren garapen teleologikorako aproposagoak bezala onartzen ditugun balore “aurrerakoi-modernoen” onarpenaren naturaltasunak, balore edo pentsamendu “atzerakoiak” existitzen jarraitu nahi duen soberakin batzuk bezala ulertzera eramaten gaitu. Gatazka historikoa, pentsamendu atzerakoiaren existitzen jarraitzeko nahi honen ondorioa da². Liberalismoari buruzko ikuspegi teleologiko horrek zera ekarri du: historialari askok paradoxa bat bezala ulertu dutela herri xeheak karlismoari emandako babesa, azken honek nekez ordezkatzeko zituelako lehenengoan interes eta aspirazioak, gizarte eta politika eredu kontrairaultzaile bat defendatzen zituelako³. Ideia guzti hauek Sáenz de Vigueraen “*Bertso-paperak carlistas y lo popular reaccionario*” testuan azaltzen dira. Egilearen helburua, bertso karlistek “basakeriaren atzean ezkututzen duten zibilizazioa ikustea da”⁴.

Egile batzuen iritziz, Erregimen Zaharra ikertu duten historialari batzuen (G. Rudé, E. Hobsbawn,...) zenbait planteamendu lagungarriak izan dira manipulazioaren topikoaren zabalkuntzan (ikusten denez, ez da beharrezkoa historialari liberala izatea historiografia liberalaren planteamenduetako batzuk hedatzen laguntzeko). Historialari hauek Erregimen Zaharreko nekazarien (nekazalgoaz bakarrik hitz egiten da, ez herri xeheko kide guztiei buruz) mentalitateei buruz zituzten iritzietan oinarritu zuten hauek kontrairaultzari babesa emateko arrazoen (edo arrazoi faltaren) azalpena. Beraientzat, “nekazal komunitatea ezaugarritzen duen aspektuetako bat tradizioaren babesa da. Lotura hau eguneroko esperientziaren, ahozko tradizioaren edota memoria kolektiboaren bitartez elikatzen da. Nekazaria, beraz, “natural” edo “espontaneoki” izango da tradizionalista, eta nahiago ditu antzinako gizarteari dagozkion egitura sozial eta kulturalak, ezagutzen dituelako, liberalismoak dakartzan berrikuntzak baino. Zentzu honetan, paper

² Ideia hauek guztiak SÁENZ DE VIGUERA ERKIAGA, Luis. “*Bertso-paperak carlistas y lo popular reaccionario*”. *Res Pública-n*, 13-14.zenb. 2004. Zibilizazioa eta basakeriaren inguruko planteamenduak 111.o. Egilea karlismoaren ikuspegi konplexu batetik abiatzen da. Honen arabera, ez dauka zentzurik karlismoa, mugimendu bezala, bere osotasunean “atzerakoi” bezala definitzea, honen barnean dagoen konplexutasun sozialarengatik. Bertso karlistei dagokionez, berak dioenez, ez genituzke hauek besterik gabe “atzerakoi” bezala kalifikatu/akusatu behar. 113.o.

³ PÉREZ LEDESMA, Manuel. “Una lealtad de otros siglos (en torno a las interpretaciones del carlismo)”. *Historia Social* en, 24. Zenb, 1996. 133.o.

⁴ SÁENZ DE VIGUERA ERKIAGA, Luis. *Op. Cit.* 115.o.

kontserbadore bat hartzen du Erregimen Zaharraren jarraipenean laguntzen duelako, hau aldatzen saiatzen den edozein elementuri aurre egiten dion bitartean”⁵. Beraz, nekazariak alde aurretik egongo ziren manipulatuak beharrezkoa zenean Erregimen Zaharraren alde altxatzeko. Interpretazio honek erabat baztertzen du nekazalgoaren aldaketa indarra (Erregimen Zaharrean behintzat), honen arabera, talde honek bilatzen duena egoeraren egonkortze bat delako (bere izaera kontserbadorearengatik), hau hobetzen saiatu beharrean. Gure ikuspuntua honakoa da: gizarte egitura guztietan bezalaxe, Erregimen Zaharrean ere eliteek beraien boterea erabiltzen zuten herri xehea beraien interesen arabera manipulatzeko. Hala ere, orokorregia iruditzen zaigu “nekazalgoa” manipulatuak talde bat zela esatea (kontuan hartuta Erregimen Zaharrean gizartearen parte handiena suposatzen zuela), ezinezkoa iruditzen zaigulako eliteen egitasmo honek nekazalgoa bezain talde handi bat baliogabetzea. Beraz, uste dugu garai hartako nekazarietako batzuk behintzat beraien aspirazioak eta ideia propioak zituztela eta hauengatik mobilizatu eta borrokatzeko gai zirela.

Historiografia liberalaz gain, XIX. mendean zabaldu zen beste korrante nagusia karlismoarena izan zen, logikoki. Honek ere bere mitoak eta topikoak zabaldu zituen, bere kausa justifikatzeko eta honi legitimitatea emateko. Karlismoaren historiografiak, adibidez, behin eta berriz azpimarratu du karlismoak herri xehearen gehiengo handi baten babesasuna jaso zuela, eta babes honen garrantzia oso puztuta agertu da historiagile karlisten hainbat lanetan. Dударik gabe, historiografia honi karlismoaren irudi hau zabaltzea komeni zitzaion, baina egia da karlismoak, bereziki eskualde batzuetan, herri xehearen parte handi baten babesasuna jaso zuela. Honela dirudi Antonio Piralaen esaldi batean. Esan beharra dago Antonio Pirala XIX. mendeko historiagile liberal garrantzitsuenetako bat izan zela, eta nahiz eta berak ikuspuntu liberal batetik idazten zuen, eta, beraz, karlismoaren indarra onartzeko inolako interesik ez zuen, batzuetan karlismoaren alderdi “positiboak” onartzen zituela. Esaldiak honela dio: *“Grande era el poder de los opuestos bandos: a ninguno amenguamos. Quizá el que mayor ejército tenía contaba menos pueblo, considerado numéricamente...”*⁶. Bi historiografiaren kasuetan, puntu bateraino benetakoak ziren ideiak erabiltzen ziren (historiografia karlistaren kasuan herriaren babesasuna, eta liberalaren kasuan

⁵ AIZPURU, Mikel, DELGADO, Ander, OSTOLAZA, Maitane. “Pueblo, política y nación en el País Vasco (1833-1936): Una aproximación a través de los *Bertso-Paperak*”. ESTEBAN DE VEGA, Mariano, DE LA CALLE VELASCO, M^a Dolores (Eds.) *“Procesos de acionalización en la España Contemporánea”* -ren barruan. Ediciones Universidad Salamanca. 2010. 334.o.

⁶ PIRALA, Antonio. *Historia de la Guerra Civil y de los partidos liberal y carlista. Tomo I: desde la Regencia de Urgel hasta la dimisión de Zumalacárregui*. Ediciones Turner, S.A., 1984, Discurso Preliminar, 8.o. Logikoa da, nahiz eta ez duen esplizitoki esaten, *“el que mayor ejército tenía contaba menos pueblo”* dionean liberalak buruz dabilela pentsatzea, hauen armada karlistena baino handiagoa izan zelako.

manipulazioarena), baina hauek muturreraino eramanez interes desberdinen arabera errealitatea desitxuratu. Hona Pere Anguerak historiografia karlistari buruz ematen digun iritzia:

“Duela gutxi arte, karlismoaren historia gerretako pasarte nagusien narrazio bat zen. Honez gain, agintarien memoriak eta biografiak zeuden, helburu justifikatibo apologetikoa zutenak, edo izaera hagiografikoa zuten panfletoak.(...) Guzti hauetan deskribapena zegoen, baina analisirik ez. Muga asko erabiltzen ziren iturrietatik zetozen, hauek ez baitzuten mobilizazioaren sustraietara hurbiltzeko aukerarik ematen, ezta ere karlistak zeintzuk ziren eta karlistak izateko zituzten arrazoiak ulertzeko”⁷.

Azken esaldi honi sinesgarritasuna emateak iturri alternatiboak bilatzeko beharra onartzea suposatzen du. Gure kasuan hauek bertsoak izango dira, noski.

Historiografia karlistaren beste eragin bat karlismo hegemonikoaren diskurtsoaren zabaltzea eta honek beste karlismo batzuen diskurtso batzuk ezkutatu dituela izan da. Gaur egun arte gehien zabaldu zen diskurtsoa (eta gaur egun hoberen ezagutzen duguna), diskurtso “ofiziala” izan da, hau da, eliteen diskurtsoa. Garai hartako klase apalenen ikuspuntuak, hauen “diskurtsoa”, ez zen eliteena bezala zabaldu (edo behintzat ez zituen zabaltzeko bide berdinak jarraitu), eta horrexegatik dauzkagu hainbeste hutsune orduko klase herrikoien ikuspegi eta pentsamoldeei buruz. Zentzu honetan, interesgarria iruditzen zaigu Manuel Perez Ledesmak proposatzen duen galdera bat: “Zergatik onartu zuten nekazariak menpeko paper hori, honek itxuraz inongo onurarik ekartzen ez bazien?”⁸.

Bi korrante hauen eraginez, garai honetako irudi nahasi bat heldu zaigu, batez ere guri interesatzen zaigun motibazioen auzirako. Oihartzun gehien izan duen korrontea liberala izan denez, honek zabaldutako irudiak izan du eragin handiena XIX eta XX. mendeko historiagileen artean, eta hauek liberalek karlistei buruz zabaldutako topiko eta ideia orokorrak onartu eta errepikatu dituzte askotan.

Karlismoari eta kontrairaultzari buruzko ikuspuntu itxi hau pixkanaka aldatzen hasi zen karlismoaren berrikuntza historiografikoarekin. Karlismoak toki batzuetan eta gizarteko sektore konkretu batzuetan izan zuen indarra ikusita, historialari batzuk gaia modu konplexuago baten

⁷ ANGUERA, Pere. “Sobre las limitaciones historiográficas del primer carlismo” *Ayer*-en, 2. Zenb, 1991, 63. o.

⁸ Ideia guzti hauek PÉREZ LEDESMA, Manuel. *Op. Cit.* 140- 141. orrialdeetan.

planteatzen hasi ziren, historiografia liberalak zabalduetako topikoetatik urrunduz. Berrikuntza honekin, karlismoaren fenomenoak ez zen jadanik hain modu sinple baten interpretatzen, hau da, goi klaseen manipulazio soil bat bezala behe klaseekiko, lehenengoek 1833 baino lehen zuten estatusa mantentzeko helburua zuena. Honela, berrikuntza honen parte izan ziren historialariak, herri xeheko kide asko karlismoa defendatzera eramane zituzten arrazoi eta motibazioen inguruan kezkatzen hasi ziren. Estatu Liberalari aurre egiteko izan zituzten arrazoiak nahiko ulergarriak dira goi klaseen kasuan. Aldiz, gizarteko sektore apalenean ez da gauza bera gertatzen. Pere Anguerak 1991. urtean honakoak idatzi zituen: “erantzun zaila duen galdera da karlismo aktiboaren motibazioena”, eta baita “nekazarien babesaren motibazioak (...) gutxi landutako lehen mailako erreakzioen ondorio dira, nahiz eta honek ez duen esan nahi ez zegoela oinarritzko base ideologiko bat, arrazoitua baino sentimentalagoa”⁹.

Karlismoaren berrazterketa honetan parte hartu duten egileek ikuspuntu desberdin batetik aztertu dute gaia. Alde batetik, ez dute gerra garaia hori bizi izan, eta, beraz, ez dira bi bandoetako batekin hainbeste inplikatu¹⁰. Bestalde, historiografia berri honek gerrate karlistekin erlazioatutako beste gai batzuk landu ditu, Pere Angueraren esaldi honetan ikus dezakegunez: “historiografia honek gerrate hauen zergatietan eta hauen eragin soziologikoetan jarri du arreta. Ikerketa berriak karlistak zeintzuk ziren eta karlismoa zergatik babesten zuten erantzuten saiatu dira. Nahiz eta gaiaren ezagutzan sakontze bat eman den, oraindik ez da lortu galdera hauek argitzeko behin betiko erantzunik”¹¹.

Berrikuntza hau hasi zenetik, hainbat egilek herri xehearen motibazioak ikertu dituzte, eta nahiz eta aurrerapausoak eman diren gai honen ikerketan, oraindik beharrezkoa da hainbeste hutsune dituen gai konplexu honen gainean lan egitea. Aurrekoarekin lotuta, azken urteetan

⁹ *Ibid.* 73. o.

¹⁰ Nahiz eta tarte kronologikoak inplikazio maila txikiago bat ahalbidetzen duen, egileen interpretazioek pisu handi bat izaten jarraitzen dute, gai honetan eta beste edozeinetan. Honen adibide bat Manuel Pérez Ledesma eskaintzen digu. Ledesma Ramón del Río Aldazek aipu bat erabiltzen du historialarien interpretazioen pisuari buruz berak duen iritzia azaltzeko. Del Río Juan Manuel Sarasak bere osaba bati (Orreagako kargu erlijioso bati) idatzitako gutun bat aipatzen du. Gutun hau Hirurteko Liberalaren garaian idatzi zen, baina denborarekin, bere egilea jeneral karlista bat izatera iritsiko zen. Bertan, Sarasak partidetara sartzeko izan dituen arrazoiak azaltzen dizkio bere osabari. Lehen aipatzen direnak berak jasan dituen irain pertsonalak izan dira (ez zaizkiolako egindako lanak behar bezala baloratu), eta gutunaren azken zatian, Sarasak erlijioaren eta monarkiaren inguruak dituen ideiak azaltzen ditu. Kontua da, del Río-ren iritziz lehenengoak bakarrik direla benetako arrazoiak, arrazoi ideologikoak berak dituen interes materialak estaltzeko, hau da, berauei legitimitatea emateko erabiltzen dituen bitartean. Hau historialariaren iritzia bat da. Ledesma dioenez (eta ados gaude berarekin), bereizketa honek hobeto islatzen ditu historialariaren aurre kontzeptzio historiografikoak aztertzen ari den pertsonaiaren motibazioak baino. Guzti hau PÉREZ LEDESMA, Manuel. *Op. Cit.* 143-144.o.

¹¹ ANGUERA, Pere. “¿Por qué eran combatientes carlistas? *Vasconia*-n, 26. Zenb, 1998, 112.o.

hainbat egilek karlismo herrikoiaren diskurtsoari¹² erreparatu diote. Esan dugun bezala, duela gutxi arte hau ez zen kontuan hartzen, interpretazio orokorrenak eliteen manipulazio gaitasuna herri xehearen balizko motibazioen gainetik jartzen zuelako, edota eliteen diskurtsoak klase herrikoien aspirazioak barne hartzen zituenaren ideia ere nahiko zabaldua zegoelako.

Euskal Herriaren kasuan, egile gutxi batzuk daude gai honi buruz kezkatu direnak. Horietako bat Josetxo Urrutikoetxea izan da, zeinek bere “Karlismoa” liburuan pista batzuk ematen dizkigun klase apaletako euskaldun karlisten motibazioei buruz. Urrutikoetxeak ikuspuntu konplexu bat dauka karlismoaren fenomenoaren inguruan, eta kondizio eta garai desberdinetako karlista desberdinen artean bereizteko beharra azpimarratzen du, hauen asmo eta aspirazioak ulertzeko. Ikuspuntu hau argi eta garbi ikus dezakegu bere liburuko hainbat esalditan, adibidez honakoan: “Behar-beharrezkoa zaigu ahalik eta protagonista talde gehienak ezagutu eta aztertzea. Nork bere asmo eta ametsak azalduko dizkigu, gerra egitera bultzatu duten arrazoiak”¹³. Arrazoi konkretuez gain, Urrutikoetxeak planteatzen dituen ideia batzuk garrantzitsuak dira gure gaia ulergarriago egiten dutenak. Hauetako bat, gure ustez kontuan hartzekoa, honako hau da: “Maiz, horrelako giroetan (gatazka ideologiko edo gerra giroetan) sortzen diren talde loturek ez dute beren oinarria izango bando bateko guztiek puntu gehienetan ados daudelarik, beste bandokoen aurkako arrazoiak dituztelako baizik”¹⁴. Hori zen hain zuzen karlista guztiek bere egiten zuten puntu garrantzitsu bat, liberalismoari aurre egiten ziotela, talde bakoitzak hau bere arrazoi propioengatik bultzatuta egiten zuelarik.

Aipatu ditugu Urrutikoetxeak proposatzen digun konplexutasunaren aspektu batzuk, baina egile honek, arrazoi konkretuei buruz hitz egitean, gaia era sinple baten ikusteko arriskuei buruz ohartarazten gaitu. Egile askok arrazoi bakar bat bilatu dute karlismoaren sorrera azaltzeko, eta asmo horrek zera ekar dezake: “kronologiaz lehenengo momentuan agertzen den arrazoa bakarrik onartzea, gainontzeko guztiak baztertuz”¹⁵. Honelako planteamenduek karlismoari eta gerrate karlistei buruzko irudi eta kontakizun sinplistik erakitzea ahalbidetu dute. Sinplifikazio hauek testu liburuetan ere izan dute oihartzuna, eta geroago ikusiko dugunez, gaur egun lehen karlismoa bigarren hezkuntzan ikasten den moduan eragin zuzena daukate. Adibide garbi bat gerrate karlistak gatazka dinastiko soil bat bezala hartu izan direla da, eta interpretazio hau egile askok mantendu

¹² Zentzu zabal batean, barnean hainbat aspektu hartzen dituena: mentalitatea, herri-kultura, ekonomia morala, ideologia, kultura politikoa. MARTÍNEZ DORADO, Gloria, PAN-MONTOJO, Juan. “El primer carlismo, 1833-1840” *Ayer*-en, 38. zenb. 2000, 49. o.

¹³ URRUTIKOETXEA, Josetxo. “Karlismoa”. Elkar, S.A., 1984, 83. o.

¹⁴ *Ibid.* 84.o. Parentesi arteko esaldia neurea da.

¹⁵ *Ibid.* 83.o.

dute. Argumentu honekin, beste arrazoi asko baztertu dituzte hainbat historialarik (herri xehearen motibazioak ukatzeaz gain), eta honela, adibidez, foruen auziak izan zuen garrantzia gutxietsi edo zuzenean ezeztatu dute hauetako askok. Horrelako dimentsioak dituen mugimendu politiko baten aurrean arrazoi bakar bat bilatzen egotea gauzak gehiegi sinplifikatzea dela uste dut, zeren eta, Urrutikoetxeak dioen bezala, “historian errealitatea ez da horren ximplea eta politikan are guttiago”¹⁶.

Gehiago ere luzatu gitezke motibazioen gaiaren inguruan, baina uste dugu orain arte egin dugun sarrera historiografiko honekin frogatua geratzen dela berau gaur egun oraindik zabalik jarraitzen duen gai bat dela, oraindik ikertu beharrekoa, eta behar izanez gero hain tradizionalak ez diren iturriekin. Gaiak zabalik jarraitzeak interpretazioetarako espazio handiak geratzen direla esan nahi du eta honek, historiografian ez ezik, hezkuntzan ere bere isla eta ondorioak ditu. Honez gain, uste dugu gaia gaur egun XIX. mendetik datozen topiko askoz kutsatuta dagoen ikuspuntu historiografiko batzuetatik abiatuta lantzen dela askotan, eta hauen ondorioz sinplifikazio eta akats batzuk dauzkan azalpen historiko bat ematen zaiela Bigarren Hezkuntzako ikasleei. Gure ustez, bertsoak bezalako iturriek gaiarekiko ikuspegi eta informazio berri eta osagarrien ekarpenak egin ditzakete, eta hauek beharrezkoak dira lehen karlismo herrikoiaren motibazioen inguruko historian aurrera egiteko, eta, bide batez, honek hezkuntzan egiten dituen ekarpenak aberasteko.

Orain, gaia aztertzea komenigarria dela frogatu eta gero, guk proposatuko ditugun iturriak gaia aztertzeke baliagarriak direla frogatzea izango da gure hurrengo helburua. Atal honetan, batez ere, bertsoak guretzat herri mentalitateak aztertzeke duten balioa azalduko dugu, eta, honetarako, hainbat historialarien ideiak aipatuko ditugu. Bertsoak, manifestazio kultural bezala, aldi berean musika eta ahozko literatura dira, eta, beraz, bi dimentsio hauetatik aztertuko ditugu herri mentalitateak aztertzeke iturri gisa.

Musikak leku garrantzitsua dauka masa mobilizazio prozesuetan. Gaur egun, musika ideia ezberdinak garraiatzeke baliagarria den elementu bat bezala ikusten dute hainbat historialarik, eta ez nolanhiko elementu bat, baizik eta jendearen mentalitateetan sakonki eragiteke gai den elementu bat bezala. María Nagore Ferrer-ek artikulu interesgarri bat idatzi du musikari buruz ikuspuntu honetatik abiatuta. Bertan, XIX. mendeko hiru himno garrantzitsuri buruz hitz egiten du: *Oriamendi*, *Gernikako Arbola* eta *Himno de Riego*. Artikuluaren hasieran esaldi esanguratsu bat dago:

¹⁶ *Ibid.* 83.o.

“El himno de Riego y la Marsellesa han despertado más inteligencias y hecho palpar más corazones que el sin fin de discursos políticos pronunciados en este país, en todas las agitaciones sociales del siglo anterior”¹⁷.

Egile honek hainbat ideia interesgarri planteatzen ditu. Berak dioenez, diskurtso politikoek entzuleen baitan momentu batez eragiten dute, eta behin hauek motibatu zituzten kausak urrun geratu direnean, oroipen huts bat bezala geratzen dira. Bere iritziz, musikaren eragina oso bestelakoa da. Ikuspuntu hau azaltzeko *“La Lucha de Clases”* egunkariaren beste zita batez baliatzen da: *“la emoción estética que produce, alcanza a seducir todas las inteligencias. (...) sus vibraciones, si son algo inspiradas, electrizan a los adeptos de un ideal y contagian los órganos sensitivos de la masa indiferente”*. Egileak onartzen duenez, bere testuak *“ideia eta egoera batzuei lotutako musikaren boterea adierazten du”*.

XIX. mendean zehar, musikak paper garrantzitsu bat eduki zuen masen mobilizazio eta nazionalizazio prozesuetan, bereziki 1870. urtetik aurrera. Zentzu honetan, Euskal Herria ez zen salbuespen bat izan Lehen Karlistadaren garaian. Bertan, Espainia osoan zehar zabaldu ziren himno eta abesti karlistak egon ziren, eta hauez gain, bertan sortutako bertsoak. Hainbat mugimendu politikorekin erlazionatuko musika bezala, bertso karlistek karlismoaren ideiak zabaltzeko eta talde barruko batasuna indartzeko helburua izan zuten.

Gure kasuan, karlismoarekin erlazionatutako musikaren barruan, bertsolaritzari jarriko diogu arreta berezia. Hau Euskal Herriko manifestazio kultural herrikoi bat izanik, herriaren pentsamenduen adierazgarri bezala har dezakegu. Argi dago bertsoak propaganda moduan ere erabili zirela (zentzu honetan, interesgarria iruditzen zaigu bertsoen paperari buruz Aizpuru, Delgado eta Ostolazaren testuan agertzen den galdera hau: ze punturaino izan ziren eliteen (liberal edo karlisten) zerbitzura zeuden akulturazio garraioak, edo errebindikazio herrikoien transmisio kateak, herriaren kritika eta nahigabea zabaltzen zituzten kateak?¹⁸), baina beti ere herri xeheak ulertzeko moduko mintzaira bat erabilita, eta klase sozial apalenak konbentzitzeko moduko argudioak baliatuz.

¹⁷ VERITAS, “Orfeones socialistas”, *La lucha de clases*, 1905-3-11. Esaldi hau NAGORE FERRER, María-ren artikuluan. “Carlismo y música”. *Imágenes, el carlismo en las artes, III. Jornadas de estudio del carlismo*. Gobierno de Navarra, 2009, 246.o. Hurrengo bi zitak bertan.

¹⁸ AIZPURU, Mikel, DELGADO, Ander, OSTOLAZA, Maitane. *Op. Cit.* 333.o.

Jurgi Kintana Goirienaren “*Lehen gerra karlista bertsoen argitan. Foruak eta erlijioa hitz neurtuetan (1823-1840)*” artikuluan, egileak bertsoak iturri historiko bezala erabiltzerako orduan dituzten abantailak eta mugak azaltzen dizkigu, eta, honez gain, hauek modu egoki batean erabiltzeko proposamen metodologiko konkretu bat eskaintzen digu. Testuaren hasieran, Kintanak herri mentalitateak aztertzeko bertsoak duten balioa defendatzen du. Berak ondo dioenez, normalean historialariek idatzizko iturriak erabiltzen dituzte euren ikerketetarako. Honek zailtasun handiak sortzen ditu helburua herri mentalitateak aztertzea denean, hauek ez dutelako idatzizko dokumenturik uzten. “Zentzu horretan, bertsoak, ustiatzeko dauden harrobi emankor bezala azaltzen zaizkigu”¹⁹. Hutsune hori betetzeko balio handia dute bertsoek, hein batean herriaren pentsaera islatzen dutelako, eta hau hobeto ulertzeko lagungarri izan daitezkeelako. Honekin lotuta, bertsoen aldakortasunaren eta hauen hartzaileen inguruko ideia batzuk aipatu nahi genituzke.

Bertsolaritza “ahozko literaturaren genero bat den heinean, honen mezuek jabetze, irakurketa eta erreproduzioek muturreko aldakortasun bat ezagutu zezaketen. (...) Publikoa ez zen hartzaile pasibo bat bakarrik, (...) honek hitz batzuk edo paragrafo osoak aldatzeko aukera baitzuen. (...) Idatzizko literatura ez bezala, testu hauek etengabeko eboluzio bat jasateko aukera zuten, eta honela, hauen azken egilea komunitate osoa zen”²⁰. Planteamendu hauei jaramon egiten badiegu (geroago azalduko ditugun bertsoen mugak ahaztu gabe, noski), pentsa dezakegu bertsoak benetan baliagarriak direla herri mentalitateak aztertzeko, askotan, herritar desberdinek moldeatutako mezuak transmititzen baizituzten.

Herri mentalitateak aztertzeko bertsolaritzak duen balioa egile batek baino gehiagok defendatu izan du. Honen adibide dugu Antonio Zavala. Beste gauza askoren artean, egile honek lan eskerga bat egin zuen bertsoak bilatzen. Guk lan honetarako erabili ditugunak, adibidez, berak bildutakoak dira. Zavalaren artxiboan gai honi buruz berak eta beste aditu batzuek emandako hitzaldi batzuen aktak aurkitu ditzakegu, eta bertan argi azaltzen da aipaturiko bertsoen balioa. Bertsolaritzari buruz, orokorrean, eta honek zuen arrakasta eta garrantziari buruz, honelako baieztapenak aurkitu ditzakegu Zavalaren artxiboan: “*El bertsolarismo es la manifestación más completa de la literatura oral entre nosotros*”²¹. “... *obtiene el bertsolarismo una influencia que para sí quisieran los mejores literatos*”. Iturri historiko bezala bertsoek duten balioari buruz

¹⁹ KINTANA GOIRIENA, Jurgi. “Lehen gerra karlista bertsoen argitan. Foruak eta erlijioa hitz neurtuetan (1823-1840)”. *Uztaron*, 30. zenb. 1999, 63.o.

²⁰ AIZPURU, Mikel, DELGADO, Ander, OSTOLAZA, Maitane. *Op. Cit.* 331.o.

²¹ Koldo Mitxelena liburutegia (Donostia). Antonio Zavala Funtsa. A.Z.D. 2.5.2.1./1. Kutxa, 2. Karpeta. Honen barruan, “Ondarroa” karpeta, 1.o. Hurrengo biak karpeta berdinean, 2. orrialdean.

honakoa dio Zavalak: *“Muy importantes son los -bertso berriak de las guerras: guerra de la Independencia, guerra de apoleón III, guerras de África, y sobre todo, los de las guerras carlistas, que constituyen un bloque de documentos históricos de primer orden”*. Herri mentalitatea ulertzeko duten balioari buruz, honelako iritziak aurkitu ditugu: “jaso eta kontserbatu den bertsoen *corpus* guztiak XIX eta XX. mendeko euskal kultura herrikoa ikertzeko lehen mailako iturri bezala balio du”²². Zavalaren artxiboan, berriz, honakoa aurkitu dugu: “... *nos sirven de enseñanza para el conocimiento de una de las costumbres más típicas del País Vasco, nos ilustra el modo de apreciar las circunstancias de la gente del pueblo*”²³.

Argumentu hauek bertsoek iturri bezala duten balioa frogatzen dute. Alde batetik, bertsoak manifestazio kultural musikatu bat dira, eta goian aipatzen denez, hauek indar eta eragin handia dute zenbait ideia transmititzerako orduan. Hau dela eta, gatazka testuinguruetan, eta are gehiago gutxi alfabetatutako gizarteetan (adibidez 1830eko hamarkadako Euskal Herrian), oso erabiliak izan ohi dira helburu horrekin. Horrez gain, baina gutxi alfabetatutako gizarteen ezaugarri horrekin erlazionatuta, bertsoak herri xehearena den ahozko literaturaren manifestazio bat dira, garai hartan garrantzi handiagoa zuena herri xehearen pentsamendua jasotzerako orduan, honek ez baizituen bere iritzi eta kezka beste euskarri batzuetan islatzen. Azken hau Euskal Herriko zenbait eskualderako batik bat baliagarria da, 1830eko hamarkadan herritar askok ez zutelako gaztelera menperatzen eta garai honetan oraindik ez zegoelako euskarazko prentsarik.

Orain arte esandako guztiarekin, uste dugu lan honen zentzua eta baliozkotasuna frogatu dugula. Ikusi dugunez, lehen karlismo herrikoiaeren motibazioen gaia oraindik irekita jarraitzen duen gai bat da, eta honek nahitaez (hau sakonago ikusiko dugu hurrengo atalean) bere eraginak ditu historialarien kontzepzioetan eta baita geletara iristen den Historian. Gaia oraindik ikertua izan behar da erantzun sinesgarri eta sendoak bilatu nahi baditugu behintzat, eta dirudenez gaur arte historialariek erabili dituzten iturriak ez dira nahikoa izan erantzun hauek aurkitzeko. Bertsoak herri pentsamendua hainbat iturri baino modu zuzenago batean biltzen dute, eta, beraz, orain arte gutxitan erabiliak izan diren iturri hauek erabiltzea probetxugarria izan daiteke gaiaren ezagutzan aurrera egiteko eta hezkuntzan honi ematen zaion tratamendua aberasteko.

²² AIZPURU, Mikel, DELGADO, Ander, OSTOLAZA, Maitane. *Op. Cit.* 329.o.

²³ KM liburutegia. Antonio Zavala Funtsa. A.Z.D. 2.5.2.1.1. /1. Kutxa, 1. Karpeta. M60/8SS. Azpimarratua neurea.

MARKO KURRIKULARRA

Karlismoaren gaia, zuzenean edo zeharka, bi etapa eta hiru kurtso desberdinetan lantzen da bigarren hezkuntzan. DBH-ko etapan laugarren mailan lantzen da, eta Batxilergokoan ,aldiz, lehen eta bigarren mailan, nahiz eta lehen mailako ikasgaia aukerazkoa den eta honek duen marko geografikoagatik (Munduko Historia Garaikidea du izena arloak, nahiz eta gehien bat Europan zentratuta dagoen) karlismoaren gaia zeharka lantzen den. Karlismoaren gai orokorraren barruan, guri interesatzen zaigun gai konkrituak, lehen karlista herrikoien motibazioenak, alegia, badu bere tokia, nahiz eta nahiko modu mugatuan lantzen den bai iturri eta bai eduki aldetik, eta ez zaion espazio handirik eskaintzen.

Atal honetan, batez ere, kurrikulumek gaiari buruz zuzenean edo zeharka diotena, edo gaiarekin erlazionatu daitezkeen multzo, eduki, ebaluazio irizpide eta ikaskuntza estandar ebaluagarriak izango dira gure aztergai nagusia. Hala ere, kurtso bakoitzeko kurrikulumari dagozkien azalpenekin batera, Master honetan burututako praktiketako bigarren epeko esperientzia baliatuko dugu, bertan gai hau lantzeko zentroan erabiltzen diren testu liburuen azterketa bat egin baitugu gaia maila praktikoago batean nola lantzen den ikusteko.

Hiru kurtso hauetatik, Batxilergoko bigarren mailan aztertzen da karlismoa modu sakonenean, eta beste bietan, aldiz, zeharka edo azaletik planteatzen da kurrikulumean. Gure lan honetarako bertsoak laugarren DBH-ko gela batera eraman ditugu. Idealena hau Batxilergoko bigarren mailan egitea litzateke, gaia modu sakonago batean aztertzen baita eta ikasleek euren gaitasunak garatuagoak baitituzte. Hala ere, kurtso honetan kurrikulumak ezartzen duen programazioarengatik eta kurtso amaieran ikasleek egin behar dituzten selektibitateko azterketengatik ikasle eta irakasleek edukitzen duten presioagatik ezinezkoa egin zaigu praktikak burutu ditugun zentroan galdetegiak Batxilergoko bigarren mailako ikasleei pasatzea, eta horren ordez, DBH-ko laugarren mailako ikasleekin egin behar izan ditugu froga horiek.

Nafarroako Aldizkari Ofizialean (NAO) zehazten den Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako kurrikulumean (24/2015 Foru Dekretua, apirilaren 22koa, 2015eko Nafarroako Aldizkari Ofiziala uztailaren 2koa), karlismoaren gaia DBH-ko laugarren mailako Geografia eta Historiako arloko bigarren multzoan agertzen zaigu²⁴. Multzo honek “Iraultza Liberalen Aroa” darama izenburu

²⁴ Nafarroako Foru Komunitateko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Kurrikuluma. NAO (24/2015 Foru Dekretua, apirilaren 22koa, 2015eko Nafarroako Aldizkari Ofiziala uztailaren 2koa), 28.o.

bezala, eta karlismoaren gaia hirugarren edukian integratzen da: “Iraultza Liberalak eta Berrezarkuntza XIX. Mendean, Europan eta Amerikan. Prozesu bateratzaileak eta independentistak. Nazionalismoak.” Argi dago gai aldetik honelako eduki zabal bat izanda, karlismoari ezin zaiola tarte handirik eskaini, eta, beraz, honen motibazioak tratatzerako orduan, hauek nahiko gaineratik tratatuak izango direla.

Aipatu dugun edukiaren barnean hirugarren eta laugarren ebaluazio irizpidetan lantzen da:

-3. Gertaera nagusiak identifikatzea Europako eta Amerikako Iraultza Liberaletan.

-4. XIX. Mendeko lehenbiziko erdiko iraultza prozesuen irismena eta mugak egiaztatzea.

Azken maila batean, gaia bi ebaluazio irizpide hauei dagozkien hiru ikaskuntzako estandar ebaluagarrietan agertzen zaigu:

-3.1. XIX. mendeko lehenbiziko erdiko iraultza burges batzuetako gertaera nagusiak adierazten ditu kontakizun sintetiko baten bidez, zergatien azalpenak emanez eta alde onak eta txarrak aztertuz.

-4.1. Iraultzaileek jokatu zuten bezala jokatzeko zituzten arrazoiak baloratzen ditu.

-4.2. Hainbat garaitako iturriak aztertuz, horien balioa ezagutzen du, ez bakarrik informazio gisa, baita historialarientzat ebidentzia diren aldetik ere.

Hiru estandar hauen bidez, gure gaiarekin erlazioa duten edukiak landu daitezke. Alde batetik, 3.1 estandarrean iraultza liberalen zergatiak azaltzeko eskatzen da eta hauek aztertuz karlisten motibazioak ere sumatu ditzakegu. Berdina esan dezakegu 4.1 estandarraz, honetan ikasleak iraultzaileen jokabideak justifikatzen zituzten arrazoiak azaltzeko eskatzen baita. Bestalde, 4.2 estandarrean iturriei egiten zaie erreferentzia, eta, honek dioenez, ikasleek hauen balioa ezagutu behar dute, ematen duten informazioarengatik eta historialarientzat ebidentzia diren heinean. Iturriei dagokien estandar honetan, noski, bertsoek toki bat izan lezakete. Esanguratsua da kurrikulumean, konkretuki 4.1 estandar honetan, iraultzaileen zergatiei ematen zaiela garrantzia, karlisten arrazoiak estandar propio bat ez duten bitartean. Honek argi uzten du karlisten motibazioei ez zaiela liberalen motibazioei eskaintzen zaien arreta berdina eskaintzen, eta lehenengoaren aldean bigarrenak bigarren plano batean geratzen direla.

Hurbilketa txiki bat egiteko, praktiketako egonaldian institutuan bertan erabiltzen dituzten testu liburuak azertu ditugu kurrikulumeko edukiak berauetan nola lantzen diren ikusteko, eta, baita, geroago, lehen galdetegian ikasleek karlismoari buruz emango dizkiguten informazioak hobeto ulertzeko. DBH-ko laugarren mailan M. García Sebastián eta C. Atell Arimontek idatzitako Vicens Vives-en “Gizarte Zientziak. Historia. Lurra. (berria)” testu liburua erabiltzen da. Liburu

honetan, karlismoaren gaia “XIX. mendeko Espainia: erregimen liberalaren ezarkuntza” atalean (laugarrena) azaltzen da.

Honen barnean, bigarren azpiatalaren amaieran gatazkaren faktoreetako bat izan zen arazo dinastikoari garrantzia ematen zaio, eta honez gain honakoa esaten da: “Ez zegoen jokoan gizon batek ala emakume batek gobernatu behar zuen, absolutismoari eutsi edo monarkia liberalari bidea eman behar ote zitzaion baizik”²⁵

4. azpiatalean, berriz, karlismoaren banaketa soziologikoa azaltzen da. Gizarte talde tradizionalenak zirela esaten da, nekazaritza-noblezia, elizjendea eta Espainiako ipar-ekialdeko nekazari gehienak. Hauen helburuak monarkia absolutuari, jaun jabetzari, elizak gizartean zuen nagusitasunari eta foruei eustea zen.

Karlismoaren soziologiari buruz hitz egitean honen klasearteko izaera oso azaletik agertzen da, batez ere hauek karlismoaren alde egiteko izan zituzten arrazoiak azaltzean eliteenak aipatzen direlako²⁶. 1833ko urriaren 7ko Valentín de Verásteguiaren Gasteizko proklamaren zati batzuk agertzen dira liburuan, eta honetan ere motibazio ezberdinak (foruak, erlijioa eta legitimitatea) agertzen dira, baina klase konkretuez hitz egin gabe.

Bestalde, mugimendua ez da Europako Kontrairaultzaren mugimendu orokorrean integratzen, ez hemen eta ez beste testu liburutan. 36.o. Vienako Kongresua aipatzean ez da “bloke” honi buruz hitz egiten.

Batxilergoko lehenengo mailako kurrikulumean, karlismoa zeharka lantzen den fenomeno bat da, Antzinako Erregimenaren Krisiari dagokion hirugarren multzoan. Hau da gaia barne hartzen duen edukia: “Vienako Batzarra eta Absolutismoa, eta 1820ko, 1830eko eta 1848ko iraultza liberal edo burgesak. Nazionalismoa: Italiaren eta Alemaniaren bateratzeak. Kultura eta Artea”. Ikusten denez, eduki zabala da, eta karlismoarekin erlazioatutako gaiak Vienako Batzarra eta Absolutismoa lantzean azaltzen dira.

Goiko edukiarekin erlazioan dauden edukiak lehenengoa eta bosgarrena dira:

²⁵ GARCÍA SEBASTIÁN, M. GATELL ARIMONT, C. *Gizarte zientziak. Historia. Lurra. (Berria)*. Vicens Vives. 71.o.

²⁶ *Ibid.* 74.o.

1. XIX. mendearen lehen erdialdearen ezaugarri den bilakaera politiko, ekonomiko, sozial, kultural eta pentsamenduarena, gertaerak, pertsonaiak eta sinboloak bereiziz eta aztertutako aldagarri bakoitzean kokatuz.

5. Vienako Batzarrak eta Absolutismoa berrezartzeak Europarako izan zuen garrantzia aztertzea, bertan esku hartu zuen herrialde bakoitzerako izandako ondorioak identifikaturik.

Hau da aurreko eduki eta ebaluazio irizpideei dagokion ikaskuntzako estandar ebaluagarri bakarra:

5.1. Vienako Batzarrean defendatu ziren ideiak eta haren konklusioak aztertzen ditu, eta haren ondorioekin lotzen.²⁷

Kurrikulumari begiratuta, batxilergoko lehenengo mailan karlismoari buruz oso zeharka hitz egiten dela ondorioztatu dezakegu. Gainera, pentsamenduaren arloan, adibidez, orokorrean garrantzi gehiago ematen zaio pentsamendu liberalari liberalismoaren aurka egiten duten korrante edo mugimenduen pentsamenduei baino, eta, beraz, guri interesatzen zaizkigun gaiak ez dira oso sakonki lantzen.

Batxilergoko lehenengo mailan Santillana Zubiako “Mundu Garaikidearen Historia” (Ezagutu saila. Egiten Jakin proiektua) testu liburua erabiltzen dute. Liburu honetan, “Berrezarkuntza eta iraultza garaia Europan (1815-1848)” atalean, Lehen Karlistada ez da aipatu ere egiten. Honen ordez, karlismoaren aurrekari batzuk aipatzen dira. Adibidez, Hirurteko Liberalaren amaieraz hitz egiten da eta honetan San Luisen Ehun Mila Semeen paperak, 1823an absolutismoa berrezartzeko orduan, tarte bat dauka. Hau esaten da orduko biztanleria liberalari buruz, klase bereizketarik gabe: “...jada ez zuten beren burua mendekotzat, eskubide osoko herritartzat baizik. Haien ustez, beren herrialdeak ez ziren erresumak, errege-erreginak oinordekotzan jasotako jabetzak; nazioak ziren, lotura historiko eta kulturalak zituzten pertsonak osatutako komunitateak”²⁸

Karlismoarekin gertatzen den bezala, askotan liberalak ere talde homogeen bat bezala deskribatzen dira eta ez dira kontutan hartzen sentsibilitate politiko honetan biltzen ziren hainbat klaseetako kideak zeudela. Honez gain, liburu honetan, aurrekoan bezala, karlistei bigarren mailako toki bat ematen zaie azalpenetan.

²⁷Nafarroako Foru Komunitateko Batxilergoko Hezkuntzako Kurrikuluma. NAO (24/2015 Foru Dekretua, apirilaren 22koa, 2015eko Nafarroako Aldizkari Ofiziala uztailaren 2koa), 68.o.

²⁸ MUNDU GARAIKIDEAREN HISTORIA. Santillana Zubia. Ezagutu Saila. Ekin Proiektua. 47.o.

Aurreko bi kurtsoetan ez bezala, karlismoak toki nabariago bat dauka kurrikulumean batxilergoko bigarren mailan. Gaia bi multzotan agertzen zaigu, bostgarrenean (Erregimen Zaharraren Krisia (1789-1833): liberalismoa absolutismoaren aurka) eta seigarrenean (Estatu Liberalaren eraikuntza gatazkatsua (1833-1874)). Honako eduki, ebaluazio irizpide eta ikaskuntzako estandar ebaluagarrietan agertzen da:

- Bostgarren multzoan:
 - Edukiak: Fernando VII.aren erregealdia: absolutismoaren berrezartzea; Hirurteko liberala; erreakzio absolutista.
 - Ebaluazio irizpideak: 3. Fernando VII.aren erregealdiaren faseak deskribatzea, eta haietako bakoitzeko gertaera garrantzitsuenak azaltzea.
 - Ikaskuntzako Estandar Ebaluagarriak: 3.1. Liberalen eta absolutisten gatazkaren faseak zehazten ditu, Fernando VII.aren erregealdian.

3.2. Karlismoa definitzen du, eta haren jatorria eta hasierako sostenguak laburbiltzen ditu.

3.3. Denbora lerro bat irudikatzen du 1788tik 1833ra, eta hartan kokatzen gertaera historiko garrantzitsuenak.

3.4. Eskema batean irudikatzen ditu Antzinako Erregimenaren eta erregimen liberal burgesaren arteko desberdintasunak, sistema politikoaz eta gizarte egituraz den bezainbatean.

- Seigarren multzoan:
 - Edukiak: Karlismoa, absolutismoaren azken gotorlekua: gogo-oinarriak eta gizarte sostenguak; lehen bi karlistadak. Karlismoa Nafarroan.

Liberalismoaren garaipena eta finkapena Isabel II.aren erregealdian (...) 1841eko Lege Hitzartua.

- Ebaluazio irizpideak:

1. Karlismoaren fenomenoak deskribatzea erresistentzia absolutista gisa iraultza liberalaren aitzinean, haren osagai ideologikoak, haren gizarte oinarriak, haren bilakaera denboraren joanean, eta haren ondorioak. Karlismoa Nafarroan.

2. Isabel II.aren erregealdian Antzinako Erregimenetik erregimen liberal burgesera ematen den behin betiko trantsizioa aztertzea,

- Ikaskuntzako Estandar Ebaluagarriak:

1.1. Karlismoaren eremu geografikoa identifikatzen du eta azaltzen haren gogo-oinarriak eta gizarte sostenguak.

1.2. Lehen bi karlistaden zergatiak eta ondorioak zehazten ditu.

1.3. Denbora lerro bat irudikatzen du 1833tik 1874ra, eta hartan kokatzen gertaera historiko garrantzitsuenak.

1.4. Nafarroak karlistadetan duen partaidetza azaltzen du: faseak, gogo-oinarriak, gizarte osaera eta pertsonaia nagusiak.

2.4. Mendizábalen eta Madozen desamortizazioak alderatzen ditu, eta zehazten bataren eta bestearen xedeak.²⁹

Ikusten denez, lehen karlismoaren gaiak pisu handia du Batxilergoko bigarren mailako kurrikulumean, eta honetan gure interesekin erlazio zuzena duten kurrikulumeko hainbat atal dauzkagu, hala nola karlismoaren sorrera bultzatu zuten arrazoiak eskatzen dituzten estandarrak edo are konketuago, karlismoaren gogo-oinarriak kontuan hartzen dituen beste estandar bat. Beste bi kurtsoetan ez bezala, kurtso honetan karlismoaren sorrera eta egonkortzea ahalbidetu zuten arrazoiak aztertzen dira. Beste arrazoi batzuren artean, honegatik esan dugu lehenago hau dela bertsoak iturri bezala erabiltzeko kurtsorik aproposena.

Batxilergoko bigarren mailan ere, DBH-ko laugarren mailan bezala, Vicens Vives-en testu liburu bat erabiltzen dute.

Kasu honetan, karlismoaren fenomenoari tarte handiagoa eskaintzen zaio. Honen sorrerari buruz, adibidez, honako prozesua deskribatzen da. Fernando VII.-ak, arazo ekonomikoei aurre egiteko, kutsu liberaleko zenbait neurri ekonomiko hartu zituen. Honek errealdisten haserrea piztu zuen eta Malcontens-en gerra piztu zuen Katalunian. Honen ondoren, absolutistak Karlos erregegaiaren inguruan biltzen hasi ziren³⁰.

Arazo dinastikoari buruz, berriz, honakoa irakurri dezakegu: “Beraz, errege izateko zilegitasuna bere osabari ala ilobari ote zegokion eztabaidatzen zen, baina oinarrian gizarte eredu zegoen”. Nahiz eta esaldi honek gerraren oinarrian zegoen arrazoia gizarte eredu ezberdinen artean zegoen talka zela aitortzen duen, Lehen Karlistadaren hasiera azaltzen duen testuak dinastia gatazka du izenburu, eta kontakizunean askoz pisu handiagoa du honek beste arrazoi batzuk baino³¹.

²⁹ Guzti hauek Nafarroako Foru Komunitateko Batxilergoko Hezkuntzako Kurrikuluma. NAO (24/2015 Foru Dekretua, apirilaren 22koa, 2015eko Nafarroako Aldizkari Ofiziala uztailaren 2koa), 57-58.o.

³⁰ Guzti hau Vicens Vives-en testu liburuan. 95.o.

³¹ *Ibid.*

Pixka bat aurrerago, karlismoaren soziologiaz eta talde ezberdinen motibazioen inguruan hitz egiten da. Gizarteko klase herrikoietako kideak ere aipatzen dira, nekazariak kasu, baina orokorrean, behe klaseetako kideen arrazoi eta ikuspuntuak azaltzean hau azaletik egiten da. Adibidez, mugimenduaren klasearteko izaera ez da behar bezala argitzen, ez baita “herri xehea” bezalako kontzepturik erabiltzen. Honen ordeztan, talde profesional ezberdin batzuk zerrendatzen dira.

Bigarren batxilergoan erabiltzen den liburu honek beste biek baino garrantzi handiagoa ematen die iturriari. Gaietako bakoitzak iturri historiko desberdin bat aurkezten du, ikasleei iturriak anitzak izan daitezkeela frogatuz. Guk aztertu dugun gaietan, adibidez, iturriari buruzko atalak “konstituzio bat aztertzea” zuen izenburutzat. Orokorrean, nahiko ohikoak izan daitezkeen iturriak azaltzen ditu liburuak, baina hala ere bilduma interesgarri bat egiten du. Bertsoak ere iturri interesgarriak izan zitezkeen atal honetan³².

Kurrikulumari buruz egin dugun azterketa honek gure gaiak honetan toki bat duela frogatzen du. Ikusi dugunez, bigarren hezkuntzako hiru kurtsoetan lantzen da gaia, baina modu zuzenean DBH-ko laugarren mailan eta Batxilergoko bigarren mailan bakarrik lantzen da, eta hauetatik Batxilergoko bigarren mailan modu sakonago batean. Beraz, bertsoak iturri bezala erabiltzea batez ere bi kurtso hauetan baliagarria izan daitekeela uste dugu. Honez gain, praktiketako egonaldia baliatu dugu praktiketako zentroan erabiltzen ziren testu liburuen azterketa egiteko, eta hau egin eta gero, hasieran planteatutako hipotesira iritsi gara: bertsoek ekarpen aberasgarria egin dezaketela iturri gisa ikerketa historikoetan eta hezkuntzan zenbait gai historiko lantzerako orduan, nahiz eta guk lehen karlismoaren motibazioen gaia bakarrik landuko dugun.

³² *Ibid.* 102.o.

MARKO DIDAKTIKOA

Lan honetarako aukeratu ditugun iturriak hautatu baldin baditugu, historiako gai jakin batzuen ezagutzan sakontzeko duten balioagatik, eta aldi berean, hauen potentzialitate didaktiko handiagatik egin dugu. Iturri hauek modu anitzetan erabiltzeko aukerak daude, hauek lantzean ikaskuntza prozesuen inguruan ditugun ikuspuntuaren arabera. Beraz, atal honetan, orokorrean ikaskuntza prozesuek gure ustez jarraitu beharko lituzketen logikak azaltzen saiatuko gara, nahiz eta gure aztergaia eta iturriak direla eta prozesu hauei buruz batez ere Historiari dagokionean interesatuko garen.

Gaur egungo hezkuntzan, Historia modu jakin batean irakasten da. Pagès-ek dioenez, “gizarte zientzien ikaskuntzan identitate nazionalen eraikuntzak protagonismo handi bat izan du disziplina sozialak irakasten diren munduko ia herrialde guztietan. Eta gaur ere protagonismo hori izaten jarraitzen du gehienetan”³³. Helburu hau XIX. mendeko hezkuntza ereduaren zuzeneko herentzia bat da. Historia nazionala transmititzean, identitate nazionalaren sentimendua indartzeaz gain, honen formazioaren narrazio jakin bat ere helarazten zaie ikasleei. Honela, adibidez, gure gaiari dagokionean, eta estatuaren markoan, XIX. mendeaz ari garenean, bi karlistadetan garaile irten ziren liberalak hartzen dira gaur egungo estatuaren *benetako* aurrekariak bezala, eta karlistak, nahiz eta geroago XX. mendean ere protagonismo handia izango zuten (berezi 1936-1939 arteko gerra zibilean), iraganaren ordezkari bezala tratatzen dira, eta haien jokabideak adaptazio ezaren ondorio bezala aurkezten zaizkigu. Guzti hau gaur egungo estatuari legitimitatea ematen dion errelato bat sortzeko nahiaren ondorioa da, eta prozesu honetan hainbat sinplifikazio egiten dira, Historiako hainbat elementu, protagonista eta abar ezabatu edo desitxuratu egiten direlarik. Honek erlazio zuzena dauka Pagès-ek egiten duen galdera batekin: “Historia lau eta lineal bat transmititzen da edo arazoei aurre egiten dien eta giza iraganaren eboluzioei dagozkien konplexutasuna ematen dien Historia bat?”³⁴. Guretzat argi eta garbi lehena da egungo hezkuntzaren errealitatea hoberen definitzen duen aukera.

Aipatzen ari garen Pagès-en testu honetan Amerikaren Historiari buruzko esaldi interesgarri batzuk aurkitu ditugu, gure interpretazioarekin bat datozenak eta bertan ere toki bat dutenak.

“Estatus quo-a defendatzen dutenak beraien bertsioa “benetako” historia bezala irudikatzen dute

³³ PAGÈS, Joan. “Enseñar y aprender ciencias sociales en el siglo XXI: reflexiones casi al final de una década”. *Investigación en Educación, Pedagogía y Formación Docente, II Congreso Internacional*. Libro 2, Medellín. Universidad pedagógica nacional, Universidad de Antioquia, Corporación interuniversitaria de servicios. 140-154. 2009. 6.o.

³⁴ *Ibid.* 7.o.

(jadanik testu liburuetan dagoelako), eta beste edozein interpretazio “egiaren” ahultze bat bezala hartzen dute”³⁵. Historia honela irakastea, edo are gehiago, honetarako erabiltzea, Historiaren ikaskuntzak jarraitu beharko lituzkeen helburuetako batzuen aurka joatea da. Alde batetik, historiari buruzko ikuspegi ez interpretatibo bat ematen zaielako, gure ustez guztiz okerra dena, eta bestalde, honakoagatik: “neska mutilek, derrigorrezko hezkuntza amaitzean, data, pertsonai eta instituzioei buruzko informazio ugari daukate, baina hau isolatua, loturarik gabe eta jarraikortasunik ez duen denbora lerro batean antolatua egoten da. Gehiegitan orainaldia interpretatzeko eta gaurko errealitateari alternatibak bilatzeko balio ez duen historia bat”³⁶.

Gure iturrien aipaturiko potentzialitate hau iturriak berak “esplizituki agertzen duen testua baino haratago doa, iturriaren egiturak zuzeneko informazio esplizitua eta zeharkako informazio inferentziala gehitzen baitu. Honek goi mailako potentzialitate kognitibo bat suposatzen du, informazioaren parte handi bat ez datorkigulako iturriak ematen digun zuzeneko informaziotik, gutxienekoa dena, baizik eta mezuaren estrapolaziotik, inferentzia sinple edo konplexuen bidez sortutako ariketa kognitiboengatik”³⁷. Honek esan nahi du informazioaren parte handi bat ez dela iturrian zuzenean agertzen, baizik eta historialariak ateratzen duela berau interpretatzerakoan.

Iturri konkretu hauek duten potentzialitateaz gain, egile batzuen iritziz, lehen mailako iturriak klasean erabiltzea (edo ikasleak artxiboetara eramatea hauekin kontaktu zuzenago bat izan dezaten) berez onuragarria izan daiteke. “Historiaren didaktika fondo artxibistikoaren edo lehen mailako iturrien erabilpena bideratzea (ez salbuespeneko metodo bezala, baizik eta ikasleei hainbat onura kognitibo eta sozial ekarri dakizkieken ikas estrategia baten moduan) hezkuntza hobetzeko aukera bat da, eta batez ere, historiaren ikaskuntza, Europa mailako berrikuntza didaktiko onenekin lotuta dagoena. (...) Ikerketa, modu osagarrian erabilita, kurrikulumaren gaiak lantzeko bide aberasgarri bat izan daiteke”³⁸.

Zenbait egileren iritziz, lehen mailako iturriekin lan egiteak ikasleen pentsamendu historikoa lantzen lagundu dezake. “Ikasleak bere pentsamendu historikoa garatzea nahi dugunean, lehen mailako iturriak irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuen oinarritzko elementu bilakatzen dira. Zentzu honetan, iturriak arazo historikoetatik abiatuz landu behar dira, non ikasleak

³⁵ *Ibid.* 7.o.

³⁶ *Ibid.* 9.o.

³⁷ GUIBERT NAVAZ, Esther, MAJUELO GIL, Emilio. *Tratamiento didáctico de las fuentes históricas. Las harineras de Navarra durante el primer tercio del siglo XX. Un taller de investigación de Historia Local para la Educación Secundaria*. Grupo Editorial Universitario. 19. o.

³⁸ TRIBÓ TRAVERÍA, Gemma. *Enseñar a pensar históricamente. Los archivos y las fuentes documentales en la enseñanza de la Historia*. Universitat de Barcelona. Horsori editorial. 2005. 150.o.

bere esperientzia historikoa erabiliko duen gaitasun historikoaren garapenerako”³⁹. Lehenago frogatu dugu guk aukeratutako gaia arazo historiografiko ireki bat dela. Gure ustez, ikasleen pentsamendu historikoa garatu eta hauek metodo historikoaren erabilerara hurbiltzeko, lehen mailako iturrien lanketa bideratu bat egin beharko genuke galdera apropos batzuetatik abiatuta.

Genma Tribóren arabera, lehen mailako iturrien erabilerak Eskola Berri edo aurrerakoiaren paidozentrismoarekin du lotura zuzena⁴⁰, zeinak ikaslea egiten duen hezkuntza prozesuaren protagonista, eta ikaskuntza prozesua ikasle bakoitzaren interesen arabera, Eskola magistrozentrikoan egiten den bezala edukiak mugatu edo aurre-diseinatu beharreen, eraiki behar dela defendatzen duen, beste zenbait proposamenen artean. Eskola Berriaren arabera hezkuntza aldatu beharra dago, eta hau modu parte hartzaile, motibagarri eta pertsonalizatuagoan planteatu beharko litzateke. Ideia guzti hauen aurrekari garbi bat XVIII. mendeko pentsalari ilustratu handienetako bat dugu: Jean-Jacques Rousseau. 1762an, *Emilio* lanean, honakoa zioen:

“Zuk zientzia irakasten duzu: oso ondo, ni berau eskuratzeko nahitaezkoak diren instrumentuak sortzeaz arduratzen naiz... Zure eginbeharra ez da zientzia ezberdinak berari irakastea, baizik eta berarengan hauenganako zaletasuna piztea, eta zaletasun hau heltzen denerako bera hauek ikasteko metodoez hornitzea. Hau da dudarik gabe hezkuntza onaren oinarrizko printzipioa”⁴¹.

Lan honetan zehar ikusiko dugunez, guk egingo dugun iturrien erabilerak Rousseau bezalako egileen lanetan oinarritutako Eskola Berriak (honela deitua nahiz eta bere ibilbidea XX. mende hasieran edo lehenago hasi zuen) defenditzen dituen ideia askorekin bat egingo du, hala nola, ikaslea Historiaren metodora hurbiltzea, edo honi bere ezagutzak eraikitzeko materiala, baliabideak eta aukera eskaintzea.

Duela gutxi arte, eta baita gaur egun, Historia irakasteko modua eduki multzo itxi baten transmisioan oinarritu da. Irakasteko modu hau ikaskuntzaren teoria konduktistan oinarrituta dago, zeinak ikaskuntza prozesu mekaniko bat bezala ulertzen duen. Hasiera batean, konduktismoaren eskolan garrantzia zientifikoki neurgarriak ziren elementuei ematen zitzaion (estimulua eta inguruneari), eta honen ondorioz, korrante honek ikaskuntza estimulua jasotzen duen

³⁹ SANTISTEBAN, Antoni, GONZÁLEZ, Neus, Pagès, Joan. “Una investigación sobre la formación del pensamiento histórico. XXI Simposio internacional de didáctica de las ciencias sociales. *Metodología de investigación en didáctica de las ciencias sociales*. 5.o.

⁴⁰ TRIBÓ TRAVERÍA, Gemma. *Op. Cit.* 151.o. Moldatua.

⁴¹ *Ibid.* Esaldia Jean-Jacques Rousseau-ren *Emilio*-tik aterata.

organismoaren eta ingurunearen arteko interakzioaren ondorioz ematen zela defendatzen zuen. Ikuspuntu honek kanpo uzten zituen norbanakoaren barruan ematen ziren barneko prozesu psikikoak (nahiz eta gaur egungo konduktistek teoria beste bide batzuetatik eraman duten), neurgarriak ez zirelako, eta, beraz, ez zitzaion arreta handia jartzen aspektu honi ikaskuntza prozesuan. XX. mendeko irakaskuntza, hein handi batean, teoria honetatik abiatuta eraikitzeak ondorio nagusi bat izan du: ikaskuntza prozesuan ikaslea hartzaile pasibo bat bezala ikusia izan dela urte askotan. Ikaslea ez zen beraz, bere ikaskuntza prozesuaren protagonista, berak ezagutzak irakasletik bere horretan hartzen zituen, inolako moldaketarik egin gabe, eta ikasleak azaldutako edukiak erreproduzitzeko gai bazen aurrera egiten zuen hezkuntza prozesuan (azterketak gainditzen zituen eta maila batetik bestera pasatzen zen).

Nahiz eta urte askotan hezkuntza ikuspuntu honetatik abiatuta diseinatu den, hezkuntza munduan lan egiten duten pertsona askok gabezi handiak ikusi dituzte teoria konduktistan eta pixkanaka hau alboratzen joan dira, beste teoria batetara hurbilduz. Teoria konstruktibistaz ari gara. Konduktismoak hezkuntza prozesu mekaniko bat bihurtzen duen bitartean, konstruktibismoak tarte handiago bat ematen dio sormenari eta ezagutzen sortze autonomoari. Teoria honen arabera, ikaskuntza prozesua ez da besterik gabe eduki jakin batzuk igorle batetik hartzaile batera pasatzean ematen. Aitzitik, benetan esanguratsua den ikaskuntza prozesua ikasleak bere barnean transmititu zaion edukien birmoldaketa bat egitean ematen dela defendatzen du. Honen arabera, ikaslea bera izan behar da bere hezkuntzaren protagonista, eta irakaslea, berriz, ikaslearen ikaskuntza prozesua gidatu behar duen pertsona izan beharko da, eta ez gaur egun arte izan den eduki transmisore soila. "Honela, Historiaren hezkuntza akademikoa jakintza historikoen zatiak ematera mugatu behar den ideia horrekin apurtzen da"⁴².

Ikasleari, beraz, bere ezagutzak eraikitzeak erremintak eman beharko litzaizkioke, honela, hezkuntza arazoan ebazpenetara bideratuz. Honek, ikaslearen ideiak etengabe aldatzea prozesu baten murgiltzea suposatuko luke, eta baita arazoak konpontzeko dituen metodoen etengabeko hobetze bat ere. Teoria konduktistan hezkuntzak duen izaerarekin alderatuta, teoria konstruktibistan berau prozesu dinamiko eta parte hartzaile bat izango litzateke, eta ikasleak berak bere ezagutzak eraikitzeak gaitasuna garatuko luke, honetarako beharrezkoak zaizkion lanabesak ematea izango bailitzateke paradigma honetan irakaslearen eta hezkuntzaren helburu nagusia.

⁴² GUIBERT NAVAZ, Esther, MAJUELO GIL, Emilio. *Op. Cit.* 18. o.

Gure planteamenduek teoria konstruktibista honekin bat egiten dute, eta geroago azalduko dugun klasean burututako iturrien erabilpena ere norabide honetan egin dugu. Gure iturriak bi helburu hauekin erabili ditugu klasean:

1- Ikasleei ematen zaien Historiari eta karlismoari buruzko ikuspuntu itxia irekitzea. Gaur egun, hezkuntzako hainbat alor eta ikasgai, gorago aipatu dugun teoria konduktistari jarraituz antolatzen dira. Historian, batez ere, edukien zuzeneko transmisioa izan da gehienetan funtzionatzeko modua. Honek disziplinen ikuspuntu itxi bat helarazi die ikasleei, non gaiak berez horrela (irakasleak transmititu dizkien bezala) direla sinestarazi zaien. Jarduteko modu honek, nahitaez, Historiaren ikuspegi monolitiko bat zabaldu du ikaslegoan, ez baita oso arrunta geletara maila historiografikoan ematen diren eztabaida eta desadostasunak iristea.

Estatuan, adibidez, Genma Tribó dioenez “historiografia eta historiaren irakaskuntzaren arteko erlazioa oso ahula da: irakatsitako historia paradigma berriei lotutako ikerketa historikotik urruti dago”⁴³. Honi lotuta, gaur egun erabiltzen diren testu liburuei ere kritika zorrotz bat egiten dio. “Eskola jakintzaren instrumentu diren testu liburu gehienek edukia izaera positibistako zaharkitutako paradigmatik islatzen dituzte, eta hauetatik disziplinari buruzko ikuspegi diakroniko tradizional bat eratortzen da. Eguneratuagoak dauden testu liburu batzuk historia ekonomiko eta sozialari protagonismoa ematen diete (...) baina “Historia Berria”-k (...) presentzia txikia du”. Testu liburuak, beraz, aldatzeko beharra dago arazoaren parte diren heinean, nahiz eta benetako arazoa hezkuntzaren kontzepzioan eta honek jarraitu beharko lituzkeen helburuen definizioan eta aplikazioan dagoen, gaurko testu liburuak gai jakin hauen inguruan iritzi eta ikuspuntu konkretuetan oinarritutako hezkuntza sistema baten isla besterik ez direlako. Egile honek aipatzen duenez, berak “Historia Berria” deitzen duenaren eta hezkuntzaren artean tarte handiegia dago, eta hori “gainditzen hasi behar da azken hamarkadetan historiak jasan duen berrikuntza metodologiko eta teorikoak irakasten den historian influentzia handiagoa izan dezan saiatuz. Historiaren epistemologian eman diren aldaketak iturrien dibertsifikazioa, beste zientzia batzuen metodologiei hurbiltzea eta lanbide zientifikoaren demokratizazioaren eta gizarte mugimendu berrien influentziaren ondorioz eman den subjektu historiko berrien bilaketa ekarri dute”. Tribóren ustez, eta baita gure ustez ere, aldaketa guzti hauek ez dira nahikoa somatu ikastetxetan irakasten den Historian, eta hauek presentzia handiago bat edukitzea orain arte hezkuntzak eraiki duen eta beherago azalduko dugun historiaren kontzepzio monolitikoa aldatzen hasteko lagungarria izango zen.

⁴³ TRIBÓ TRAVERÍA, Genma. *Op. Cit.* 150.o. Hurrengo bi zitak ere bertan.

Gai eta ikuspegi berri hauek ezin dira edozein modutan klasera eramane. "Gai berri hauek praktika berri batzuetan gorpuzteko eta gaitasun sozial eta hiritarrak garatzen hasteko, beharrezkoa da metodoak eta heziketa praktikan esku hartzeko moduak berbideratzea. (...) Gizarte Zientziak testu liburuen edukien deskripzio hutsetik haratago irakasteak estrategia didaktiko berritzaileak eskatzen ditu, eta hauek ikaslea pentsaraztera eta testuinguru sozialetan esku hartzera bideratu behar dira"⁴⁴.

Gaur egungo historiografiaren eta didaktikaren arteko erlazioa estuagoa litzateke "iturri desberdinak -dokumentalak, ahozkoak, materialak- historiaren ikaskuntzan maiztasunez erabiliko balira"⁴⁵. Honek lehenago aipatu ditugun ikuspuntu paidozentristaren helburuetako batzuk lortzen lagunduko luke. "Aldaketa honek ahaleginak historiaren ikaskuntzaren mekanismoak hobetzera bideratuko lituzke, hau da, ikaslearen ikaskuntzan eta ez hain beste historiaren irakaskuntzan zentratutako ariketa eta dinamiken programaziora. (...) Lehen mailako iturriak historiaren ikaskuntzan kontestualizatzen lagunduko luke, eta berauen ezagutzari eta hezkuntzan hauez egiten den erabilpenari mesede egingo lioke".

Historia manual bati jarraituz eta eduki jakin batzuen transmisioan oinarrituta eman denez, honen bertsio jakin bat irakatsi zaie ikasleei, eta ez zaie erakutsi Historia historialariak etengabe eraikitzen ari diren zientzia bat dela, ezta ere subjektibotasunak honetan duen garrantzia. Laburbilduz, errelato historikoa emana dagoen egi bat bezala ikaslarazi zaie ikasleei, eta honetan irakasleak eta kurrikulum eta testu liburuen egileek nahi izan dituzten ikuspegi eta iritziek bakarrik izan dute lekua. Honek, gai guztietan Historiako hainbat protagonisten eta berauen ikuspuntuen isilaraztea suposatu du (langileak, emakumeak, garaituak, boteretik at dauden taldeak,...), eta logikoa denez, gure gaian ere.

Klaseetan zabaldu den Historiari buruzko ikuspegi honetan, iturriei tratamendu jakin bat eman zaie. Guibert eta Majueloren arabera, "gaurko hezkuntzan iturriei ematen zaien erabilpen eta tratamenduak nahiko orokortua dagoen honako ideiarekin zerikusia du: historikoa dena dokumentuetatik gertaerak ateratzean datza, eta hauek (dokumentuak) gertaerak benetan eman direla eta historialariak eraiki dituen bezala eman direla frogatzeko balio dute"⁴⁶. Egile hauek bezala, ez gatoz bat iturriei buruzko ikuspegi honekin historialariak gertaerak "atera" baino gehiago

⁴⁴ PAGÈS, Joan. *Op. Cit.* 10. o.

⁴⁵ TRIBÓ TRAVERÍA, Genma. *Op. Cit.* 151.o. Hau eta hurrengo zita bertan.

⁴⁶ GUIBERT NAVAZ, Esther, MAJUELO GIL, Emilio. *Op. Cit.* 18. o.

interpretatu egin behar dituelako, eta baita klasean erabilitako iturriek oso bestelakoak diren helburu batzuekin erabili beharko liratakelako, gure ustez behintzat. “(...) Iraganaren hondakin den edozer bilakatu daiteke iturri baten. Zerbait iturri izateak ahalbidetzen duenak ez dauka dokumentu edo objektuarekin zerikusirik, baizik eta historialariak planteatzen duen arazo edo galderari erantzuteko duen erabilgarritasunarekin”⁴⁷.

Aurreko atalean frogatu dugunez, karlismo herrikoiaren motibazioen gaia zabalik dagoen gai bat da, eta historiografian duela gutxi hasi zaio gai honi merezi duen tratamendua ematen. Hezkuntzan ematen den Historia historialarien lanen moldaketa bat izanda, argi dago baten gabeziak bestean ere islatu direla. Karlismoa hezkuntzan lantzean, perspektiba soziala ez da behar beste kontuan hartu, eta honenbestez, karlismoaren talde handienaren (eta baita beste batzuen), hau da, karlismo herrikoiaren iritzi, ikuspuntu eta eboluzioak, hitz batean, beraien Historia, ez dira klasean landuak izan.

2- Ikasleei iturri alternatiboen erabilpenaren garrantzia frogatzea. Historian, konpondu gabeko arazo bat daukagunean, orain arte erabili izan ditugun iturriek ez badute gehiago aurreratzeko aukerarik ematen, iturri berriak bilatu behar izaten ditugu. Historialariak iturriak behar ditu Historia eraikitzeke, eta berak dituen kezka ezberdinen arabera, iturri desberdinak beharko ditu. Iturri batzuk aproposak izango dira gai edo gizarteko sektore batzuei buruz hitz egiteko, baina beste batzuk ikertzeke, aldiz, ez dute balio handirik izango. Adibidez, Historia militarra lantzen ari bagara, kanpaina militar bat ikertzean oso baliagarriak izango zaizkigu estrategia nagusien mapak eta zenbait dokumentu aztertzea, baina gerra horrek berak gizarte zibilean izan zituen eraginak aztertu nahi baditugu, beste motako iturri batzuk bilatu beharko ditugu, prentsa kasu.

Karlismoari buruzko historiografia gehienbat eliteetan zentratu da eta Historia mota hori ikertzeke erabili diren iturriak, kasu batzuetan behintzat, ez dira hain aproposak karlismoaren klase herrikoiaren inguruan ditugun galderari erantzuteke. Honenbestez, beste iturri batzuk bilatu behar izan ditugu karlista apalenen motibazioetara hurbiltzeko, eta, gure kasuan, hauek bertsoak izan dira. Iturriak klasera eramatean ikasleek ikusi dute iturri ezberdinek historiako ikuspegi edo protagonista desberdinak aztertzeke balio dutela eta, honela, hainbestetan jaso izan duten Historiaren irudi monolitiko hori zalantzan jartzeko aukera eman zaie, bertan agertzen ziren

⁴⁷ *Ibid.* 18.o.

ideietako batzuk ez baiziren beraiek landutako testu liburuetan agertzen. Honek iturrien balioa eta historialariaren metodoa ikasleengana hurbiltzea suposatzen du.

Guk erabili ditugun iturrien izaerak ere ikasleengan jakinmina pizten lagundu dezakete. Klasera bertso sorta batekin sartzean, eta hauek iturri historiko bat direla azaltzean, ikasleak harritu egiten dira, ez baitute uste hauek iturri historiko bat izan daitezkeenik. Hau geroago komentatuko dugun lehen galdetegiko lehen galderan jaso ditugun erantzunekin frogatzen da, zeinetan gutxi batzuk aukeratu dituzten bertsoak iturri historiko bezala. Bertsolaritza ere, kasu batzuetan beste batzuetan baino gehiago, noski, beraiei hurbila egiten zaien adierazpen kultural bat da, denek baitakite bertsolaritza zer den, eta horrez gain, badakitelako beraien inguruari estuki lotuta dagoela, hau da, bertako kulturak eraikitako adierazpen kultural bat dela.

Klasean egin dugun saiakera hau, zeinari buruzko xehetasunak aurrerago emango ditugun, ikuspegi konstruktibista batetik eraman da, bere azken helburua ikasleek eurek beraien ezagutzak eraiki eta hauei buruzko ondorioak ateratzea izan delarik. Ikasleei beharrezkoak zituzten argibide eta informazioak eman zaizkie, eta, aldi berean, iturriak beraientzat moldatu dira hauen hizkuntzak (XIX. mende hasierako bizkaitarrez idatzita daude) sortu zitzaketen arazoak ekiditeko eta hauek beraientzat guztiz ulergarriak izateko Hortik aurrera, beraiei eskatu zaie iturri hauek interpretatzea, bai gaiari buruz ematen duten informazioen inguruan, eta baita iturri bezala dituzten ezaugarri eta potentzialitateei buruz. Ikasleek, honela, gaiari buruz lortu dituzten ezagutza berriak honen inguruan beraien iritziak eman dituztenean lortu dituzte, eta ez zenbait azalpenen ondorioz, hauek eman direnean beraiek azkenengo urrats hori emateko helburuarekin eman baitira.

Zenbait egileren iritziak, eskola mailan lehen mailako iturriekin lan egiteak abantaila anitzak eskaintzen ditu. Santisteban, González eta Pagès-en ustez "Iturri historikoen bidezko historiaren irakaskuntzak; testu liburuen egituraren antolaketa gainditzea ahalbidetzen du; gertuko historia ezagutzen laguntzen du, baina baita beste errealitate batzuekin erlazioak sortzen; ezagutza eztabaidagarri bezala ulertutako ezagutza historiko bat sortzen du; ikaslea disziplinaren eduki problematikoan sartzea errazten du; objektibitatearen kontzeptua azaleratzen dute manual edo testu historiografikoaren aurrean; gertatu zena "egoera natural" antzeko batean ikusten laguntzen du eta ikasleagoa iraganarekin zuzenean kontaktuan jartzen du; ikaslearen protagonismoa eta autonomia bultzatzen dute honek egiten duen historiaren berreraikitzean; irakaskuntza eta ikaskuntza prozesua dibertsifikatzen du eta esperientzia aberastasunari mesede egiten dio"⁴⁸

⁴⁸ SANTISTEBAN, Antoni, GONZÁLEZ, Neus, Pagès, Joan. *Op. Cit.* 5.o.

Lehen mailako iturriekin lan egiteak, gure ustez, “ikasleengan jakintza historikoen inguruko gogoeta piztuko du, iturriei galderak egiteko saiakeretara eramango ditu, iragana berreraikitzekeo prozedurak erabili eta ulertzeko beharrezkoak diren gaitasunak indartzen lagunduko die, iragana ezagutzeko moduak aldatzen (ez benetako iragana), iragana lanabes, baliabide eta operazio jakin batzuei esker ezagutu ahal dugula ulertzen, eta iragana, honen irudikapena eta honi buruzko interpretazioak guregana nola iritsi den ulertzen”⁴⁹ lagunduko die.

Ikasleak metodo historikoarekin kontaktuan jartzean, hau martxan jartzeko ezinbestekoa den enpatia historikora ere hurbiltzen ditugu. “Enpatia prozedurazko kontzeptu bat da, eta iragana nolakoa zen edo orduko protagonisten motibazioak ulertzen laguntzen digu, nahiz eta hauek orain desegokiak iruditu ahal zaizkigun”⁵⁰. Ikertzen ari den gaia ulertzea izan behar da, hain zuzen ere, historialariaren lehen eginkizuna, eta hau ikaslegoari transmititzea oso garrantzitsua iruditzen zaigu. Gure kasuan, adibidez, gaia ulertzeko, honakoa kontuan hartu behar dugu : “jendeak iraganean bizitzeko modu ezberdinez gain esperientziak zituen, eta arau eta sinesmen sistema ezberdinen arabera jokatzeko zuen”. Edozein garai historikoko giza talde baten jokabidearen zergatiak aztertzen ari garenean, ezinbesteko da hau kontuan hartzea eta ahal dugun neurrian gure gizarteko kide bezala pentsatzeak suposatzen dituen inplikazioak saihestea, nahiz eta hau ezin dugun %100ean bete arrazoi honegatik: “historialariek (edozein) egoera ulermen enpatikotik islatu eta irudikatu dute, iraganari testuinguru bat beraien gaurko pertzepzioetatik eta epai moraletatik eman dioten bitartean”.

Guibert eta Majueloren antzeko ikuspuntua du Genma Tribók, eta eskola mailan artxiboetako fondoekin egiten diren ikerketak bere iritziz jarraitu behako lituzketen helburuetako batzuk aipatu nahi genituzke. Nahiz eta gure proposamena ez den artxiboetan bertan lan egitea, bertatik guk ateratako iturriak klasera eramatea planteatzen dugu, eta nahi izanez gero, proposamen hau artxiboetan lantzeko aukera ere izango litzatekela uste dugu. Honenbestez, uste dugu berak planteatzen dituen helburuetako gehienak, behintzat, gure lan honen helburu ere izan litezkeela. Hauek dira, gutxi gorabehera, egile honek planteatzen dituen helburuak: “pentsamendu kritikoa eta errealitatearen ikuspegi dinamiko eta hobegarri bat bultzatu; pentsamendu sortzaile eta alternatibo bat eraikitzen lagundu; ikasleek erabakiak hartzen ikastea eta hauek publikoki defenditzeko gaitasuna garatzea, ikerketaren emaitzak klase guztiari azaldu ahal izateko; gaitasun

⁴⁹ GUIBERT NAVAZ, Esther, MAJUELO GIL, Emilio. *Op. Cit.* 18. o.

⁵⁰ SANTISTEBAN, Antoni, GONZÁLEZ, Neus, Pagès, Joan. *Op. Cit.* 4.o. Hau eta hurrengo bi zitak bertan.

sozial eta parte hartzaileak landu; eta azkenik, historikoki pentsatzen irakatsi, hau da, eraikitako ezagutzak denbora eta espazio sozialean integratzeko gai izatea”⁵¹.

Bertsoak musikatutako adierazpen kultural bat dira, eta, beraz, musika eta didaktikaren arteko erlazioari tarte bat eskaintzea komeni dela uste dugu. Geroago ikusiko dugunez, klasean egin dugun saiakeran ez ditugu klasera bertsoak forma musikatu batean eraman, baizik eta testu batean. Hala ere, bertsoak musikatuta eramateko aukera ere egongo litzateke, berriagoak direnen kasuan grabazioekin, eta zaharragoak direnen kasuan, berriz, gerora egindako grabazioekin (adibidez 2010ean Joseba Tapiak kaleratutako *Eta tira eta tunba* bigarren karlistadako kanta bildumarekin).

Gero eta ohituago gaude klasean ikus entzunezko materialak erabiltzen. Historiako klaseetan, adibidez, sarritan erabiltzen dira zinea eta literatura material didaktiko gisa. Musikaren kasuan, ordez, ezin dugu berdina esan, honen erabilera ez baitago hain orokortua. Bere gaztaroan jasotako klaseak gogora ekartzen, honakoa digu M.A. López Zapicok: “Historia Garaikidea ikasteko hain interesgarriak izan daitezkeen himnoentzat ere ez zegoen tokirik klase haietan. (...) Batez ere hizkuntzen ikaskuntzan izan da musika erabilia hizkuntza gaitasunak garatzeko. Ezin dezakegu berdina esan Historia eta Ekonomiaren kasuan”⁵². Historiaren ikaskuntza eta ikerketarako erabilgarria izan daitekeen musika, beraz, oraindik ere gutxi erabilitako baliabide bat da. Musika hainbat arrazoiengatik izan daiteke errekurtsio didaktiko egokia. “Musika errekurtsio egoki bat izan daiteke klasean bere lengoia unibertsalarengatik, gaur egungo gizartean duen presentzia handiagatik eta bere izaera motibatzailearengatik. Musika Historiako klaseetan erabiltzea mugimendu sozial garaikideekin duen lotura estuan oinarritzen da”⁵³. Musikan eta abestien letretan garaiko gizartearen ezaugarriak, pentsamendua eta kezkak azaltzen dira, eta beraz, erreminta oso egokia iruditzen zaigu gizarte bateko aspektu hauek ikertzeko. Honez gain, testu baten mezua modu eraginkorrago batean hel daiteke hartzailearengana musikaz lagundua badoa. “Abestien ezaugarri nagusia, testuari musika gehitzean honek entzulearen artetik irakurtze soilak sortzen duen alde zuzeneko jarrera psikologiko, zentzumenezko eta kultural desberdin bat lortzen duela da”⁵⁴.

⁵¹ TRIBÓ TRAVERÍA, Genma. *Op. Cit.* 163.o. Moldatua.

⁵² LÓPEZ ZAPICO, Misael Arturo. “El uso de canciones como recurso en la enseñanza de la Historia Económica Contemporánea”. BRINGAS GUTIERREZ, Miguel A., CATALÁN MARTÍNEZ, Elena, TRUEBA SALAS, Carmen, REMUZGO PÉREZ, Lorena (Eds.) *Nuevas perspectivas en la investigación docente de la historia económica*-ren barruan. Editorial Universidad Cantabria. 2016. 4.o. Egilea Historia Ekonomikoan zentratzen da.

⁵³ GUTIÉRREZ SÁENZ, Damián. *Las artes populares en la didáctica de la Historia: cine, literatura y música.* (MAL) 15.o.

⁵⁴ *Ibid.*

Bertsoak, adierazpen kultural musikatu bat izateaz gain, herrikoiak ere badira. Musika herrikoiak ere ez da errekurso didaktiko bezala erabilia izan. “(...) musika herrikoiak, gutxitan iturri bezala hartua eta klasean oraindik ez dena sartu Giza Zientzien Didaktikaren eskutik. Literaturarekin gertatzen den bezala, musika Annalen Historia Sozialaren eskolari esker sartu zen Historian”⁵⁵.

Atal honetan, gure ustez ikaskuntza prozesuek, askotan gaur egungo hezkuntzan jarraitzen ez dituzten, baina gure ustez jarraitu beharko lituzketen logikak azaldu ditugu. Bestalde, lehen mailako iturriez ere hitz egin dugu. Iturri hauek erabili ditzakeen ikerketa mundua eta beste erabiltzaile potentzial baten, alegia, hezkuntzaren arteko erlazio estu batek eman ahalko lituzkeen fruituak ere aipatu ditugu. Baina iturriez hitz egiterakoan garrantzitsuak diren beste gai batzuk ere jorratu izan dira orrialde hauetan. Orokorrean lehen mailako iturriak hezkuntzan erabiltzeak ekarri ditzakeen aspektu positiboak biltzen saiatu gara, eta gehiago zehazteko helburuarekin, gure iturriek dituzten hainbat ezaugarri ere laburbildu nahi izan ditugu. Hurrengo atalean gure lanaren fase enpirikoari ekingo diogu, eta honetan hemen aipatutako ideiekin lan egiten saiatuko gara.

⁵⁵ *ibid.* 14-15.o.

ESKU-HARTZE FASEA

SARRERA

Orain, behin marko teorikoa azaldu dugula, honetatik abiatuta klasean egin ditugun esku hartzeen zergatiak, emaitzak eta ondorioak azalduko ditugu. Esku-hartze hauek Nafarroako Unibertsitate Publikoan egindako Bigarren Hezkuntzako Irakasle Masterreko *Practicum II* epearen barruan eman dira.

Esku-hartze fasearen oinarriak ikasleei pasatako bi galdetegi izan dira. Galdetegi hauetako bakoitza helburu desberdinekin planteatu dugu, apur bat aurrerago zehaztuko ditugunak. Bi galdetegien kasuan, bost edo sei galderako luzera izan dute, gehienak bai/ez erantzutekoak edo aukera jakin bat aukeratzekoak izan direlarik, nahiz eta arrazoitzeko pare bat galdera ere egon diren.

Marko kurrikularrean azaldutakoari jarraituz, eta izan ditugun aukerak baliatuz, galdetegiak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren mailako bi taldetan pasatu ditugu, bata 26 ikaslekoa eta bestea, berriz, 29koa. Esku-hartze fase honetan bi taldeen erantzunak bateraturik agertuko dira, grafika gehiegi ez sartzearen. Beraz, grafikoak 55 pertsonako lagin batek eman dizkigun datuetatik eginak izango dira. Bigarren galdetegian, aldiz, ikasleen lagina pixka bat txikiagoa izango da, egun horretan talde bakoitzetik ikasle bat falta izan zelako. Honenbestez, bigarren galdetegiko lagina 53 ikaslekoa izango da.

Aipatutako bi taldeetako batean tutoretzako orduetan sartu gara, eta bestean, berriz, Gizarte Zientzietako klaseetan. Honek, gure iritziz, ikasleen erantzunetan bere eragina izan du, ikasleak erlaxatuago sentitzen baitira tutoretzako klaseetan eta agian ez dituztelako gauzak Gizarteko klasean bezain serio hartzen.

Galdetegiak Iruñerriko ikastetxe batean pasatu ditugu, zeinak izaera kontzertatua duen. Zentroan D eredia dago indarrean, eta ikasleen maila sozioekonomikoa erdi edo erdi-goiko mailakoa dela esan dezakegu. Taldeen jarrera nahiko egokia izan da, nahiz eta momentu batzuetan, eta batez ere gorago aipatutako arrazoiarengatik, ikasleei behin baino gehiagotan guk eta beraien

irakasleek galdetegian zentratzeko eskatu behar izan diegun. Ikasleetako batek Asperger sindromea zuen, baina salbuespen hau alde batera utzita, zentroko irakasleek ez digute eman taldeei buruzko ohar berezirik, eta, beraz, pentsa dezakegu ez direla talde oso gatazkatsuak.

LEHEN GALDETEGIA

Pasatu dugun galdetegiak sei galderako luzera izan du, eta hau erantzuteko ikasleek gutxi gorabehera hamar minutuko denbora behar izan dute. Galdera hauetatik, bostetan ikasleei erantzun sorta bat eman zaie eta hauetatik bat edo gehiago aukeratu behar izan dituzte. Azkenengoan, berriz, bai/ez galdera bat planteatu zaie baina gero beraien erantzuna arrazoitzeko eskatu zaie. Orokorrean, egindako galderak modu errazean ulertu dituzte, nahiz eta kasu batzuetan zalantza batzuk agertu dituzten eta laguntza pixka bat ematea beharrezkoa izan den.

Lehen galdetegi honetan bi izan dira gure interes puntu nagusiak. Alde batetik, ikasleek iturri historikoei buruz dituzten ideiak ezagutzea bilatu dugu. Honetarako, lehen bi galderetan klasean egiten den iturrien erabilera ezagutu nahi izan dugu ikasleei iturri sorta bat eskainiz eta beraiantzat iturriak zirenak aukeratzeko eskatuz, eta azkenik klasean erabiltzen dituztenak aipatzeko eskatu zaie. Bestalde, gure beste interes puntua bertsoekin landuko dugun gaiaren inguruan (karlismoa) zituzten ideia orokorrak ezagutzea izan da, iturriak zuzenean erabili baino lehen gai honi buruz pentsatzen zutena ezagutzea interesatzen zitzaigulako.


Aztergai hauek arrazoi batengatik ziren interesgarriak guretzat. Lehen galdetegi hau bigarren galdetegia prestatzeko beharrezko pauso bat izan da. Honekin, aipaturiko bi aztergai hauen inguruko ideia eta iritziak ezagutu nahi genituen gerora bigarren galdetegiaren forma eta norabidea finkatzeko. Esan bezala, lehen bi galderak iturrietara bideratuak daude. Honekin gure iturriak klasean berritzaileak izango zirela ikusi nahi genuen, hau da, lehenago erabiliak izan ez direla. Horrez gain, ikasleek hauek iturri moduan hartzen zituzten ere ikusi nahi genuen.

Galdetegiaren bigarren zatiarekin, zeinak karlismoaren gaia du aztergai nagusitzat, ikasleek honi buruz dituzten ideiak ezagutu nahi genituen hau nola erakusten zaien jakiteko. Honen inguruan atal honetan azaltzen joango garen hipotesi batzuk ditugu eta galdetegi hau hauek zuzenak ala ez ziren frogatzeko erabili nahi izan dugu. Ikasleen aurrekontzepzioak ikustea baino gehiago, gure helburua gaiarekin kontaktu bat izan eta gero dituzten ideiak ezagutzea izan da.

Laburbilduz, karlismoaren gaia iturri eta ikuspuntu gabezi batzuekin irakasten den ala ez ikustea izan da lehen galdetegi honen azken helburua, honek justifikatu dezakeelako gai hori lantzeko gure iturrien erabilera.

Lehenengo galderan iturri sorta bat jarri zaie ikasleei eta hauetatik beraien ustez iturriak zirenak aukeratzeko eskatu zaie. Hau orokorrean iturriei buruz pentsatzen dutena ikusteko egin dugu, hau da, beraienez iturri bat zer izan daitekeen ulertzen saiatzeko. Guk jarritako aukerez gain, tartetxo bat utzi dugu beraiak beste iturriren bat gehitu zezaten. Honakoak izan dira lehen galderak eman dizkigun emaitzak.


1. Hauetatik, zein uste duzu izan daitekeela iturri historiko bat? Nahi duzun guztiak aukeratu



Grafikoan ikus dezakegunez, “Konstituzioak” izan da gehien aukeratutako aukera, eta hau ez da harrizkoa, klasean tradizionalki gehien erabili izan diren iturrietako batez ari garelako. Asko aipatu diren beste iturri batzuk pergaminoak, eraikinak (arkitektura), txanponak, literatura, margolanak eta mapak izan dira. Hauek guztiak iturri nahiko “klasikoak” direla esan genezake, hau da, duela urte asko testu liburuetan agertu izan diren iturriak, eta ikasleek aukeratu badituzte pentsa dezakegu gaur egun ere, nahiz eta berrikuntza batzuk eman diren, guk bigarren hezkuntzan ezagutu izan ditugun iturriek dutela oraindik protagonismo handiena historiako klaseetan. Horrez gain, esan beharra dago ikasleek iturriei buruzko ikuspegi nahiko irekia dutela, aukera anitzak egin dituztelako. Hala ere, kasu batzuk deigarriak iruditu zaizkigu ikasle gutxik aukeratu dituztelako. Bereziki argazkiez, zineaz eta hondakin materialez ari gara. Hauek sarritan erabiltzen dira klasean (hondakin materialen kasuan argazkietan) informazio iturri edo gehigarri gisa, eta harrizkoa da hain ikasle gutxik iturritzat hartzea. Bertsoak gutxien hautatutako aukeretako bat izan dira, eta bete gabe utzi dugun tartearen ikasle bakar batek baliatu du, zeinak Biblia gehitu duen iturri taldera.

Iturrien inguruko bigarren galderan aurreko aukeretatik klasean erabiltzen dituztenak aipatzea eskatu diegu ikasleei, beraien kontzepzioez gain iturriei eman dieten erabilera praktikoak baloratu ahal izateko.

2. Aurrekoetatik, zeintzuk erabili edo aipatu izan dira Historiako klaseetan?




Aurreko grafikoak eman dituen baloreekin alderatzen baditugu, honakoak eman dituenak askoz ere baxuagoak dira, konstituzioen salbuespenarekin. Honen ondoren, baina kopuru askoz txikiagotan, mapak, eraikinak eta txanponak aipatu dira. Baloreen jaitziera hau logikoa da puntu bateraino, baina grafikoan Historiako klaseetan potentzialitate handia izan dezaketen eta klaseak aberastuko lituzketen iturri batzuen baztertzea somatu dezakegu. Batez ere deigarria iruditzen zaigu zinea ez aipatu izana, normalean klasean erabiltzen den errekurtsio bat izateagatik. Bestalde, argazkiak ere oso gutxi aipatu dituzte, baina hau agian ikasleen akats bati egotzi deizaikegu, testu liburuetan irudien komentarioak egiten baitira, nahiz eta beste batzuetan hauek narratzaile gehigarri bezala erabiltzen diren. Argazkien kasuan gertatzen den hau beste kasu batzuetan ere gerta daiteke. Adibidez, hondakin materialen kasuan, hauei ere tarte bat eskaintzen zaiolako, eta ikasleek ez baitute baloratu hauek klasean erabiltzen direnik. Bertsoak ere, espero genuen bezala, ez dira klasean iturri historiko gisa erabiliak izan.

Lehen bi galdera hauekin ikasleen iturrien inguruko pertzepzioetara hurbildu nahi izan gara. Ondorengo lau galderekin, aldiz, karlismoaren inguruan dituzten ikuspegi orokor batzuk ezagutu nahi izan ditugu, batez ere bigarren galdetegia enfokatzeko orduan beraien ikuspegi eta akats kontzeptualak kontuan hartzeko.

Hirugarren galderarekin ikasleek karlismoaren osaketa soziologikoari buruz dituzten usteak ezagutu nahi izan ditugu. Karlismoa klasearteko mugimendu bat izan zen, kideak gizarteko sektore apalenetatik eliteetaraino aurkitu zituena. Gure ustez, ideia hau ez da behar bezala transmititu, eta hori da hain zuzen, galdera honekin egiaztatu nahi izan duguna. Honetarako, bost talde sozial jarri ditugu erantzun posible gisa eta ikasleei karlismoa hauetako batean kokatzeko eskatu diegu, nahiz eta baten batek bi taldetan ere kokatu duen.

3. Karlismoa ze motatako mugimendua izan zen?




Ikasleek, batez ere, bi talde soziologiko aukeratu dituzte karlismoa bertan kokatzeko. Hauek burgesak eta nekazariak izan dira, eta hauetako bakoitza 17 ikaslek aukeratu dute erantzun bezala. Hurrengo erantzun aukeratuena klase pribilegiatuen taldea izan da, honen ondoren klaseartekoa eta azkenik elitista.

Gure hurrengo interes puntua aspektu ideologikoetan zentratu da. Oraingoan, ikasleek karlismoa XIX. mendeko zein mugimendu edo pentsamendu politikotan kokatzen duten jakitea izan da gure xedea. Karlismoa liberalismoaren agerpenarekin Europa mailan sortu ziren erreakzio mugimenduen parte izan zen. Marko epistemologikoan aipatu dugun karlismoaren berritze historiografikoaren korranteak karlismoa Europako Kontrairaultzaren mugimendu zabalaren barnean kokatzen du. Europako beste herri batzuetan ere liberalismoaren ezarpenaren aurkako mugimenduak antolatu ziren, adibidez Vendée-a Frantzian, jakobitak Eskozian edo miguelistak Portugalen. Gure ustez, eta nahiz azken hamarkadetan zentzu honetan aurrerapen handiak egin diren, kontrairaultzaren mugimenduak ez du izan historiografian merezi izan duen arreta (XVIII eta XIX. mendeko beste pentsamendu eta mugimendu politikoekin alderatuta behintzat, adibidez


liberalismoarekin eta sozialismoarekin), eta fenomeno hau ez da sakonki ikertua izan. Honek, noski, bere eraginak izan ditu bigarren hezkuntzan fenomeno hau ikertzerako orduan, eta horregatik uste dugu kontrairaultzaren zentzua eta baita kontzeptua nahiko ezezagunak edo gaizki azaldu eta ulertuak izan direla.

Hauxe da, hain zuzen ere, laugarren galderarekin frogatu nahi izan duguna. Honetarako, laugarren galdera hau bi galdera ezberdinetan zatitu dugu. Lehen zatian, ikasleei eskatu diegu karlismoa eman dizkiegun lau aukeretako batean kokatzeko (ilustrazioa, kontrairaultza, liberalismoa, sozialismoa), eta bigarren zatian, berriz, kontzeptu hauek ezagunak al zaizkien galdetu diegu (grafikoan ezezo erantzunak bakarrik agertuko ditugu).

4.1 Europa mailako XVIII edo/eta XIX. mendeko ze mugimendu edo pentsamendu politikotan kokatuko zenuke karlismoa?



4.2. Kontzeptu hauek ezagunak al zaizkizu?



Laugarren galdera honetako lehen zatiari dagokion grafikoan argi ikusten dugu zein izan den ikasleek aukeratu duten erantzuna: liberalismoa, hau da, karlismoaren etsai nagusia. Aukera hau 32 ikaslek egin dute. Beste aukerak balore askoz baxuagoak eman dituzte. Hurrengo aukera hautatuena sozialismoa izan da, eta hau 13 ikaslek aukeratu dute. 10 ikaslek soilik kokatu dute karlismoa kontrairaultzaren barruan, eta bakar batek, berriz, ilustrazioan. Galderaren bigarren zatiak balore oso baxuak eman ditu ezezko erantzunak bakarrik agertu ditugulako grafikoan. Ikasleek diotenez, denek ezagutzen dituzte ilustrazioaren eta liberalismoaren kontzeptuak. Kontrairaultzarena lau ikasleri ezezaguna egin zaie eta sozialismoarena, aldiz, ikasle bati.


Karlismoa fenomeno konplexu bat da eta bere agerpena hainbat faktorek eragindako ibilbide konplexu baten ondorio izan zen. Faktore edo arrazoi hauez hitz egiterakoan eztabaidak egoten dira historialarien artean. Hau batez ere nabarmena zen XIX. mendeko historialarien artean, orduan karlismoaren sorrera garaia oraindik hurbil zegoelako, eta ondorioz, idazten zutenek inplikazio handiagoa zutelako idazten zutenarekin (XX. mendean ere inplikazioek jarraitu zuten, baina agian leunduagoak). Gure ustez, hala ere, orduan eta orain batzuetan karlismoaren sorreran garrantzia izan zuten arrazoiak buruz hitz egiterakoan, azaleko arrazoiak aipatzen dira gaiaren muinera joan gabe, historiografia desberdinek (karlista eta liberalak) euren posizioak justifikatzeko erabiltzen zituztenak. Gaur egun ere, marko epistemologikoan ikusi dugunez, historialari haien interpretazioek beren eragina izaten jarraitzen dute.

Argi dago maila historiografiko batean eman diren (eta oraindik ematen diren) eztabaida hauek beraien oihartzuna izan dutela eskoletan irakasten den historian, eta oihartzun hau izan da, hain zuzen ere, bostgarren galdera honekin neurtu nahi izan duguna. Helburu honekin, karlismoaren sorreran garrantzia izan zuten arrazoi batzuk eskaini dizkiogu ikasleei beraien hauek nahi dituztenak aukeratu eta hauek beraien ustez zuten garrantziaren arabera zenbatzeko. Hauek izan dira arrazoiak (batzuk luzeegiak ziren grafikoan galdetegian agertu ziren bezala agertzeko eta horregatik jartzen ditugu hemen):

- Erlijio gaiak
- Karlos V.aren eta Isabel II.aren arteko arazo dinastikoa
- Foruak
- Lur komunalak
- Arrazoi ideologikoak (liberalismoaren eta absolutismoaren arteko gatazka)
- Munduari eta gizarteari buruzko ikuspegi ezberdinak

- Nekazal munduan erreformak
- Ohitura zaharren desagertpena


5. Zein arrazoik bultzatu zuten karlismoaren sorrera? Aukeratu nahi dituzun guztiak eta ordenatu itzazu zenbakiekin zure ustez izan zuten garrantziaren arabera



Lehen arrazoi bezala (grafikoan urdin ilunez) bi izan dira aukera nagusiak eta ia bakarrak (nekazal munduen erreformen (1) salbuespenarekin): arazo dinastikoa eta arrazoi ideologikoak (20 bakoitzak). Bigarren arrazoi bezala (grafikoan laranja) ere bi hauek izan dira aukeratuenak (12) eta hauen ondoren foruak (9). Azken arrazoi hau, oro har hirugarren aukera izan dela esan dezakegu. Grafikoan ikus dezakegunez, ikasleek hainbat arrazoi hartu izan dituzte kontutan, baina beste maila batetan, lehen eta bigarren arrazoi bezala aipatutakoak nabarmendu direlarik. Azken galdera hirugarren eta bostgarren galderekin erlazionatuta dago. Hirugarrenean ikasleen iritziez arduratu gara karlismoaren osaketa soziologikoari dagokionean, eta bostgarrenean, berriz, karlismoaren sorreran eman ziren arrazoiengatik inguruko hauen interpretazioan.

Azken galdera honetan ikasleei honakoa galdetu diegu: ea karlistak izan ziren guztiak arrazoi berdinegatik izan ote ziren karlistak. Galdera bai/ez moduan planteatuta dago eta gero ikasleei beraien erantzuna arrazoitzeko eskatzen zaie. Honekin jakin nahi izan dugu ea ikasleek karlista izateko talde sozialen arabera motibazio ezberdinak egon ziren ala ez uste duten. Hauek izan dira jaso ditugun erantzunak:

6. Uste duzu karlistak izan zirenak arrazoi berdinegatik izan zirela karlistak? Zergatik?



Oraingo honetan ikasleen gehiengoak (29) ezezko aukera hautatu du, baiezkoa erantzun dutenen kopurua apalagoa izan den bitartean (18). Beste batzuk ez dakitela (5) erantzun dute edo zuzenean ez dute erantzun, eta beste hiruk, eman dituzten erantzunak ikusita, ez dute galdera ondo ulertu. Izan ere, galdetegi guztitik zalantza gehien sorrarazi dituen galdera honakoa izan da, ziurrenik iritzi historiko arrazoitu bat ematea eskatzen duelako. Beraien erantzunen zergatiak ematerakoan, baiezko eta ezezko erantzunak eman dituztenak antzeko argudioak erabili dituzte, baina lehenengoek modu bateratuan. Hau da, denek aipatu dituzte absolutismoaren, foruen, elizaren eta pribilegioen defentsa, baina baiezko erantzuna eman dutenek guztiek honegatik borrokatu zutela esan dute, eta ezezkoa eman dutenek, berriz, batzuk batzuen alde eta beste batzuk beste arrazoi batzuegatik borrokatu zutela erantzun dute. Hauetan, deigarria da foruen alde borrokatzeko interesa batzuk bakarrik zutela nahiko zabaldua dagoela. Ikasleren batek erantzun sakonagoa eman du eta talde sozialen araberrako motibazio ezberdinak egon zitezkeela pentsatzen duela ikusten da erantzunean.

LEHEN GALDETEGIARI BURUZKO ONDORIOAK

Iturriei dagokienez, eta ikasleek erabiltzen duten testu liburua ikusita, zeinak atal bereziak eskaintzen dizkion iturri ezberdinei gai bakoitzaren amaieran, ez da harritzekoa ikasleek iturrien inguruko hain ikuspegi zabala eta, orokorrean, egokia edukitzea. Nahiz eta gutxiengo bat izan den, ikasle batek baino gehiagok aukeratu ditu jarritako guztiak eta, beraz, uste dugu batzuk behintzat barneratuta dutela iturriak gauza oso ezberdinak izan daitezkeela. Hau pixka bat aldatzen da bertsoen kasuan. Izan ere, 55 ikasletik 12k bakarrik uste dute hauek iturriak izan daitezkeela, eta honek, karlismoaren gai konkretuan ikerketa historikoan eta hezkuntzan egin dezaketen aportazioak alde batera utzita, hauek iturri bezala erabiltzea komenigarria izan daitezkeen dugun ustea indartzen du.

Gai honen inguruko beste ondorio bat lehenago ere gainetik aipatu dugu. Gaur egungo klaseetan egiten den iturri historikoen erabilerak potentzialitate handia duten iturrien baztertua dakar. Iturri anitz eta berritzaileak klasean sartzeak Historiako klaseak aberastuko lituzkete. Klaseak arin eta dinamikoagoak egitean, ikasgaiarekiko ikasle askok duten ikuspuntu ezkorra ere aldatuko litzateke. Beste gauza batzuen artean, iturrien aniztasuna erakusten bazaie, agian beraien inguruan dituzten elementu askok kutsu historiko bat izan dezaketela ulertuko dute, eta honek ikasle ugari historiari buruz duten irudi arrotza aldatzen lagundu dezake. Honez gain, iturrien erabilera egoki batek ikasleen ohituretan ere aldaketa onuragarriak ekarri ditzake. Adibidez, literatura iturri bezala erabiltzen badugu, ikaslea honekin kontaktuan jarriko dugu Historia ikasten ari den bitartean, eta agian honek gerora ere izango duen zaletasun bat pizten ere lagunduko dio. Hau, noski, grafikoan aipatzen ditugun beste hainbat iturriekin ere gertatu daiteke, adibidez, zinea, arkitektura, margoa, argazkilaritza, eta baita bertsolaritzarekin.

Karlismoaren osaketa soziologikoari dagokionez, argi dago ikasleei ez zaiela ikuspegi egoki bat transmititu, eta, gainera, transmititu zaiena ere ez dutela oso ondo ulertu. Ikasle askok karlismoa mugimendu burges bat bezala definitu dute, eta honek karlismoari eta burgesiari buruzko akats kontzeptual larriak dituztela argi uzten du, burgesia eta karlismoa aurrez aurre egon ziren klase sozial bat eta klasearteko mugimendu bat izan zirelako. Erantzun egokia 12 pertsonak soilik aukeratu dute, eta beste askok, nahiz eta "burgesia" aukeratu dutenak baino erantzun egokiagoak eman dituzten, ez dute erantzun zuzena eman, karlismoa hartzen zuena baino talde sozial murrizagoetara mugatu dutelako. Beraz, esan dezakegu gure hipotesia, guk aztertu ditugun

ikasle taldeetan behintzat, zuzena dela, hau da, karlismoaren klasearteko izaera ez zaiela ikasleei behar bezala transmititzen edo hauek ez direla karlismoaren ezaugarri honetaz jabetzen.

Mugimendua ideologikoki kokatzerako orduan arazo handiak izan dituzte ikasleek. Gehiengo zabal batek karlismoa liberalismoaren barruan kokatu du, eta honek, gure ustez, ikasleek Erregimen Zaharraren Krisiaren garaiari buruz oinarrizko kontzeptu asko gaizki ulertu dituztela erakusten du. Badirudi liberalismoaren eta Erregimen Zaharraren arteko gatazka garaia ikastean ikasleek ez dituztela ulertzen gatazka hau bultzatu zuten arrazoi nagusiak eta talde bakoitzak ordezkatzeko zituen interes eta ikuspegi ezberdinak. Gabezi hau, liberalismoaz gain, nahiz eta maila txikiago batean, sozialismoaren kontzeptura ere hedatu dezakegu, aukera hau ikasleen bigarrena izan baita (13). Karlismoa hemen kokatzen duten ikasleek ezer gutxi ulertu dute karlismoaren eta sozialismoaren inguruan. Aukera egokia 10 ikaslek soilik egin dute, hau da, %18,18k.

Galderaren bigarren zatian ikasle gehienek aipatutako lau kontzeptuak ezagutzen dituztela erantzun dute (kontzeptu ezezagunena, guk uste genuen bezala, kontrairaultzaren kontzeptua izan da), baina lehen zatian eman dituzten erantzunak ikusi eta gero, argi dago kasu gehienetan kontzeptu hauek izenez bakarrik ezagutzen dituztela. Honek guztiak erakusten digu ikasleek akats kontzeptual larriak dituztela karlismoaren eta kontrairaultzaren inguruan, baina baita liberalismoaren eta sozialismoaren inguruan ere.

Bostgarren galdera planteatzerakoan, beste gauza batzuen artean, aldeztatik gure hipotesi bat egiaztatu nahi izan dugu. Gure ustez, Karlos V.aren eta Isabel II.aren artean egon zen arazo dinastikoa da jende askorentzat karlismoaren sorreran eta baita Lehen Karlistadaren hasieran egon zen arrazoi nagusia. Guretzat, aldiz, eta baita karlismoari buruzko berritze historikoaren parte diren historialari askorentzat ere, karlismoaren sorreran eta gerraren muinean arrazoi ideologikoak egon ziren, edo beste modu batera esanda, liberalismoaren eta absolutismoaren arteko gatazka, eta honekin batera bakoitzak defenditzen zuen gizarte ereduen artekoa. Galdera honi dagokion grafikoan ikusten dugunez, bi arrazoi hauek emaitza oso berdintsuak eman dituzte, eta, beraz, esan daiteke, guk hartu dugun laginaren kasuan behintzat, interpretazio orokortuenak direla, edo, behintzat, ikasle hauen erantzunak interpretazio horietan oinarritutako narrazio baten iritziak islatu dituztela. Marko kurrikularrean aipatu dugunez, testu liburuek gaur egun bi arrazoi hauei pisu handia ematen diete eta hori grafiko honetan islatzen da.

Gorago aipatu dugun bezala, foruak ere ikasle askok aipaturiko arrazoi bat izan dira. Gure ustez, iritzi honetan eragin handia du ikasleak Nafarroan ikasi izanak, bertako eta, orokorrean, Euskal Herri osoko testu liburuetan presentzia handia baitaude foruek karlismoaren sorrera azaltzerako orduan.

Lur komunalen auzia edo nekazaritzan liberalismoarekin eman ziren erreformak ez dira, ikasleen iritziak, arrazoi garrantzitsuak karlismoaren sorreran. Hau, gure ustez, esanguratsua da bi arrazoi hauek bereziki (ez bakarrik) klase herrikoien gainean zutelako eragin zuzenena, eta, beraz, nahiz eta argi dagoen hauek baino faktore gehiago egon zirela, honek islatzen du karlismoaren inguruan ikasleei egiten zaien narrazioan hauek ez dutela toki handirik. Beste modu batera esanda, ikasleek ikasten duten karlismoaren historia gehiago hurbiltzen dela eliteen historiara klase herrikoien historiara baino.

Ikasleen gehiengo batek uste du karlista izateko motibazio ezberdinak egon zirela, eta, beraz, karlismora hurbildu zen pertsona orok ez zuela hau arrazoi berdinegatik egin. Hala ere, beste ikasle askok kontrako iritzia dute, eta, honenbestez, uste dugu lehen iritzia are gehiago zabaltzeko lanean jarraitu behar dela, iritzi horrek ahalbidetuko duelako karlismoaren motibazioen inguruko ikerketek jarraitzea eta baita ikasleei Historia zabalik dagoen zerbait dela ulertzen lagunduko diena. Egia esan, uste genuen ikasleen gehiagok aukeratuko zuela bigarren aukera, baina, azken finean, ikuspegi hau izatea onuragarria da guretzat bigarren galdetegira begira, bertan planteatuko zaiena errazago ulertuko dutelako.

Ondorio orokor bezala, esan dezakegu bigarren hezkuntzan karlismoaren gaia gabezi askorekin lantzen dela. Gabezi hauek, gehienetan, lehenago aipatu dugun Historia irakasteko modu tradizionalaren ondorio dira, maizegi ikasleengan motibazio handirik sortzen ez duena eta historiaren ikuspegi itxi bat eskaintzen diona, zabalik dauden arazoez aldentzen dena eta narrazio itxi eta gehiegitan elitista bat eskaintzen duena. Honen eraginez, ikasleak ez dira jabetzen karlismoaren klasearteko konposizioaz eta ezta ere honen ezaugarri ideologikoez (hau XIX. mendeko beste mugimendu batzuei buruz ere esan daiteke). Mugimenduaren sorreran egon ziren arrazoen inguruan, XIX. mendeko historiografiak zabalduko eta XX. mendekoak mantendutako hainbat interpretazio sinplistik ere pisu handia izaten jarraitzen dutela uste dugu. Motibazio ezberdinen inguruan, badirudi interpretazio berriak pixkanaka hezkuntzan sartzen ari direla, baina oraindik lan handia dago egiteko zentzu honetan. Aspektu hauek, eta lehen bi galderen emaitzekin

egiaztatu dugun iturrien erabilera tradizionalak, gure bigarren galdetegian bertsoak erabiltzera garamatzate.

BERTSOETAN OINARRITUTAKO ESKU-HARTZEA. BIGARREN GALDETEGIA

GAIAREN TESTUINGURUA ETA IKASLEENTZAKO ITURRIEN

EGOKITZAPENA

Bigarren galdetegi honetan iturriak erabili ditugu. Iturriak (bertso sorta bat) klasera eraman ditugu eta ikasleei hauen inguruko sei galdera planteatu dizkiegu. Gaiaren aldetik, lehenengoa baino konplexuagoa da, eta, beraz, azalpen txiki bat eman diegu ikasleei hauek kokatzeko eta galderei modu egokian erantzuteko aukera emateko. Iturriak ere moldapen bat behar zuten ikasleentzat erabilgarriak izateko, batez ere hizkuntza aldetik, XIX. mende hasierako bizkaitarrez idatzita baitaude, eta logikoa denez, ikasleak ez daudelako honekin ohituak.

Aurreko galdetegian ikusi dugun bezala, ikasleek arazo batzuk dituzte gu lantzen ari garen gaiko hainbat kontzepturekin. Hau eta iturrien erabilerak inongo azalpenik eman gabe izan zitzakeen ondorioak aurreikusita, galdetegia pasatu baino lehen azalpen txiki batzuk eman genituen gaiaren eta iturrien inguruan. Ezer azaldu baino lehen uste dugu komenigarria dela ikasleei jarritako bertso sorta hemen azaltzea, emandako azalpenaren zentzua eta beharra hobeto ulertzeko. Hauek izan ziren ikasleei pasatu genizkien bertsoak:

*1)Liburu bat eskuban
Urrez estalduba,
liberaltxu zaldunen
dau erregaluba.
Libertade berri bat
berdintasunagaz;
nor gozatuko ez da
liburu honegaz?*

*2)Errege bera bere
guztiyen mendian
erakutsiten jaku
gaur bere legian.
Guztiyok agintari,
guztiyok nagusi;
baña alan ote dan
begira ikusi.*

3)Ekintsari ederrak,

*espainol maiteak,
egin deuskuz ugari
Damatxo gaztiak.
Baña liberalentzat
dituz ondasunak:
libertade, agintza,
nagusitasunak.*

*4)Eurak dira bakarrik
Españan juezak,
alperrik bai ikusi
jentien naiezak.*

*5)Petxu-eskabidiak
egunero legez,
iñoren izerdiyaz
aspertu eziñez.
patente ta registro
zenbat beste asmo?
Ez eutsan Barrabasi
goguak emongo.*

*6)Orra libertadia,
dirubak kendurik,
ez genduban izango
lapurren beldurrik.
¡Damatxu apaindubak
eukan bai tranpia!
Ez da gutxi jakiña
enemigadia.⁵⁶*

Bertso sorta hau Koldo Mitxelena liburutegian (Donostia) aurkitu genuen Antonio Zavalaren funts gordeetan. Zavala, beste gauza askoren artean, XX. mendeko bertso biltzaile garrantzitsuena izan zen, eta berari esker gaur egun hainbat garaitako bertsoak kontserbatzen dira, beste modu batean galduak egongo zirenak. Berak sortutako Auspoa argitaletxeko *Karlisten leenengo gerrateko bertsoak* liburuan ere bertso berberak aurki ditzakegu. Bertso hauek 1823an, Hirurteko Liberala amaitzen ari zela Markina, Xemein eta Etxebarrin amaiera hori ospatzeko jarriak izan ziren.

Nahiz eta bertso hauek Lehen Karlistadaren aurretik idatzi ziren, gure ustez baliagarriak dira herri xehean sentimendu hau nolakoa zen eta zergatik sortu zen hobeto ulertzeko. Gainera, Lehen Karlistada baino 10 urte lehenago bakarrik idatziak dira, eta hau ez da denbora nahikoa herri mentalitatea zeharo aldatzeko. Beraz, pentsa daiteke Lehen Karlistada hasi zenean euskaldun askok horrelako iritziak izango zituztela liberalismoaren inguruan.

⁵⁶KM Liburutegia. Funts gordeak. Antonio Zavala funtsa. "Contsituziñoko damiaren asmuak zortzikuan". Karlistaden 1. kutxa, 6. karpeta. A.Z.D.2.5.2.1. Honen barruan lehen karpetatxoan, 5-6. orrietan.

Bertso hauek eta bertan agertzen diren iritziak esperientziatik idatziak izan ziren. XVIII. mende amaieratik, Hego Euskal Herriko biztanleek behin baino gehiagotan izan zituzten kontaktuak liberalismoarekin. Gehienetan, kontaktu hauek gerra giro batean eman ziren (Konbentzioaren aurkako gerra, Independentzia gerra, Hirurteko Liberaleko partidak). Gerra hauez gain, Frantziarekin dagoen hurbiltasunarengatik, eta bertako euskaldunek bizi izan zituzten esperientzien ondorioz, hegoaldeko euskaldunek hango gertakarien eta egoeraren berri izan zuten Frantziako Iraultza eman zenetik. 1812-14 eta 1820-23ko saiakera liberalak ere lehen pertsonan bizi izan zituzten gerora 1833an hasi zen Lehen Karlistadan karlisten alde parte hartu zutenetako askok. Esperientzia hori modu negatiboan baloratu zuten askok bertsoetan ikus dezakegunez. Euskaldun askorentzat, liberalismoaren aginte urteak Erregimen Zaharrean bizitakoak baino gogorragoak izan ziren.

Herri xehean liberalismoaren inguruan zegoen ikuspegiei buruz informazio asko eskaintzen dute bertso hauek. 1823rako euskaldun askok ez zuten jada liberalismoaren diskurtsoan sinesten. Hauentzat, liberalismoa hitz politak ziren, baina errealitate gordina. Hori ongi ikus dezakegu bertson-sail honetan. Liberalismoaren kontra zeuden pertsonetako asko ez zeuden, adibidez, berdintasunaren (legeari eta eskubideei dagokionez) printzipioaren aurka, baina beraiek bizi izandako liberalismoaren aginte urteak eta gero, jadanik ez zuten sinesten liberalismoak benetako berdintasunik ekarriko zuenik. Are gehiago, beraien ustez liberalismoa gutxi batzuen probetxurako ezarri nahi zen sistema berri bat zen. Bertsoetan agertzen denez, klase apalenetako kideetako askok uste zuten sistema berriarekin ondasunak, konstituzioak ematen zituen askatasunak eta aginte postuak elite liberalaren esku geldituko zirela. Erregimen Zaharra ere elite baten mesedetan antolatutako sistema bat zen, baina saiakera liberalen urteetan herri xeheko kide askok beraien bizi egoerak larritzen ikusi eta gero, nahiago zuten sistema zaharra mantendu okerragotzat jotzen zuten sistema berri hori onartzea baino.

Ikus dezakegunez, bertso sorta honen gai nagusia liberalismoa da, edo konketuago esatearren, idazten dutenek honi buruz duten ikuspegia. Aurreko galdetegian ikusi dugunez, ikasleek arazoak dituzte liberalismoa bezalako kontzeptuekin, eta zalantza hauek pixka bat argitzeko eman genien azalpena honen inguruko oinarrizko informazio batzuekin hasi genuen. Batik bat liberalismoak defenditzen duen betebeharren, eskubideen eta legearen aurreko berdintasunaren printzipioari eman genion garrantzia, esan bezala, bertso-sail guztiak honen inguruan hitz egiten baitu.

Sarrera kontzeptual hau eta gero, bertsoek iturri bezala dituzten ezaugarriez hitz egin genien ikasleei. Honen inguruan hiru ideia nagusi aipatu genizkien: gutxi alfabetatutako gizarteetako klase apalen pentsamendua aztertzeko oso iturri aproposak direla, herriaren praktika kultural bat direla eta XX. mendera arte mezuak zabaltzeko eta propaganda moduan erabiliak izan direla.

Ondoren, ikasleei bertsoak idatzi ziren uneari buruzko testuinguru historiko txiki bat eman genien, hauek ospakizun modura idatziak zirela azalduz, biztanle askok liberalismoarekin edukitako kontaktuak gerra testuinguruetan eman zirela aipatuz eta Hirurteko Liberaleko errealistak liberalismoaren kontra karlisten aurrekari garbiak izan zirela argituz.

Ikasleei galdetegia erantzuten hasten utzi baino lehen, azkenengo pausu bat eman genuen: bertsoen zentzua banaka azaldu. Hau, batez ere, berauetan erabiltzen den euskararekin zalantzarik ez egoteko egin genuen, ez baita erraza XIX. mende hasieran bizkaitarrez idatzitako bertso sail baten zentzua lehengoan eta guztiz harrapatzea.

BIGARREN GALDETEGIA

Aurreko galdetegia bezala, honakoa ere bi bloke nagusitan banatzen da. Lehenengoan, zeinak galdetegiaren lehen lau galderak hartzen dituen, ikasleek iturrietatik abiatuz beraien iritzi eta argudiaketak ematea bilatu dugu. Bigarrenengan, aldiz, ikasleei iturri hauek erabili eta gero hauek iturri bezala duten balioa baloratzeko eskatu diegu.


Aipatutako azalpenak eman eta gero, ikasleei galdetegiarekin hasteko eskatu genien. Lehenengo galderan bertso hauen zentzu orokorraren inguruan galdetu genien ikasleei. Honekin jakin nahi genuen ea ikasleek, bertso-sail hau ikusi eta gero, uste al zuten bertan ematen diren iritziek, zeintzuk herri xehearen parte bat ordezkatzen duten, arazo handiagoak islatzen dituzten liberalismoaren diskurtsoarekin edo liberalismoa elite berri baten mesedetan ezarritako sistema bat denaren ustearekin. Gaia ikuspuntu tradizional batetik ikusita, dudarik gabe, lehenengo arrazoia aukeratuko genuke. Aldiz, karlismoaren gaiari dagokion konplexutasuna aitortzen badiogu, agian bigarren aukeran ere pentsatuko genuke. Guretzat, bertso sail hau ikusita, bigarren aukera honek hobeto ordezkatzen du bertan azaltzen den iritzi orokorra.

1. Bertso hauek klase apaletako kide batzuen pentsamenduaren isla dira. Zure ustez, hauek zerekin zituzten arazo handiagoak?

-Liberalismoaren diskurtsoa

-Liberalismoak elite berri batzuen (batez ere burgesiaren eta gobernu berriko kideen)

mesedetan antolatutako sistema bat zekarren.




Ikus dezakegunez, ikasleen gehiengo handi batek (43) bigarren aukera hautatu du. Bertso hauek diotena kontuan hartuta, beraien ustez hauek idatzi zituztenak (edo hauek ordezkaten dituzten taldeak) liberalismoa elite berri batzuen mesedetan antolatutako sistema bat zen, eta ez bere diskurtsoarekin (zeinaren aspektu batzuekin puntu bateraino ados egon daitezkeen) koherentea zen (edo izan nahi zuen) sistema bat. Zazpi ikaslek, aldiz, uste izan dute liberalismoaren aurka zeudenak ñabardurarik gabe zeudela honen diskurtsoaren aurka. Ikasle baten iritziz bai bata eta bai bestea maila berdinean zeuden liberalismoaren aurka egoteko arrazoi bezala, eta beste batek, aldiz, ez du erantzun.

Hurrengo galderaren zentzua aurrekoarekin erlazionatuta dago. Oraingoan galdetu diegu ea bertso hauek ikusita uste al duten karlistetako batzuk liberalismoaren ideia batzuekin konforme egon zitezkeen, eta honez gain beraien erantzuna arrazoitzeko eskatu diegu. Lehenago ere azaldu

dugu lan honetan gai honi buruz dugun ikuspegia, eta egin beharreko iruzkinak ere egin ditugunez, ez gara orain horren inguruan luzatuko. Ideia hauen barruan berdintasunaren printzipioan zentratu gara, zeina bertso sailaren gai nagusietako bat den. Honekin jakin nahi izan dugu ea ikasleek ikasi dutena zalantzan jar dezaketen iturri hauek erabilita, edo, beste modu batera esanda, iturri hauen erabilpenak ikasleei gai historikoak gama grisetan ikusteko aukera eman al dieten ikusteko, tonoz txuri edo beltzetatik aldentuta.


2. Bertso hauek ikusita uste al duzu karlistetako batzuk behintzat liberalismoaren ideia batzuekin (berdintasunaren printzipioa, adibidez) konforme egon zitezkeela? Zergatik?



Oraingoan, gehiengo zabal batek (40) baietz erantzun du. Ezezkoa 11 pertsonen soilik eman dute, eta bi pertsonen berriz, ez dakitela erantzun dute. Zergatiak ematerakoan, batzuk ez dituzte eman. Ezetz erantzun dutenek honelako argudiaketak eman dituzte: karlistek ideiak oso garbi zituztela eta, beraz, ez zegoela printzipio liberalekin ados egoteko aukerarik edo liberalek karlistek erreibindikatzeko zutenaren kontrako eskatzen zutela. Baiezkoa argudiatu dutenek karlistak ez zutela liberalen promesetan sinesten edo karlisten artean pentsamendu ezberdina zuen jendea zegoela esanez egin dute orokorrean. Hauen artean, ikasle baten erantzunak bereziki harritu gaitu bere sakontasunagatik. Bere iritziz, berdintasunaren ideia oso erakargarria zen klase herrikoiaren artean, nahiz eta karlismoaren barruan egon, eta honegatik baiezko erantzuna eman du.

Hirugarren galderarekin aurrekoan agertu den ideia hori ikasleek lehenagotik ezagutzen zuten jakin nahi izan dugu. Horretarako, hau inoiz klasean aipatu al zaien galdetu diegu. Gure aurretiko ustea zen hau ez dela klasean agertu izan, eta uste hau, bizi izandako esperientzia akademikoaz gain, marko kurrikularrean aipatu eta azaldu ditugun testu liburuen azterketan oinarritzen zen.

3. Ideia hau aipatu al zaizu historiako klaseetan?



Grafikoak erakusten duenez, oraingoan erantzunak aurreko galderetan baino parekatuagoak egon dira. 25 ikasleren ustez, klasean inoiz ez zaie komentatu karlista apalenetako batzuk liberalismoaren ideia orokor batzuen aspektu batzuekin ados egon zitezkeela. Bestalde, 23 ikaslek kontrako iritzia eman dute, eta, azkenik, bostek ez dakitela erantzun dute edo zuzenean ez dute erantzun.


Egia esan, emaitza hauek harritu egin gaituzte, ez genuelako espero ideia hauek klasean aipatu izana. Hala ere, apur bat pentsatu eta gero, uste dugu galdera planteatzerako orduan, edo ikasleek hau interpretatzerako orduan, arazo edo akats batzuk eman direla. Gure ustez, ikasle askok galderan agertzen den “hau” horrekin berdintasunaren printzipioaz orokorrean ari ginela uste izan dute, eta ez honen aspektu batzuen gainean karlista batzuk izan zituzten iritziei buruz. Beraz, uste dugu baietz erantzutean berdintasunaren printzipioa bai aipatu zaiela erantzuten ari

zirela, eta, beraz, gure galdera ez dutela behar bezala ulertu, ziurrenik hau modu nahasi batean planteatzeagatik. Zentroan erabiltzen diren testu liburuak aztertzerakoan, zeintzuk klasean ematen diren azalpenen oinarria diren, ez dugu aurkitu ideia honen antzekorik. Testu liburuez gain, edo hauen barnean, ikasleek gehien erabiltzen dituzten iturriak (lehen galdetegian esan digutenez) konstituzioak, mapak, eraikinak, txanponak eta literatura dira. Azken honen kasua kenduta, ez dugu uste gu lantzen ari garen ideia besteetan agertu daitekeenik, eta nahiz eta literaturan agertu daitekeen, harritzekoa litzateke DBH-ko laugarren mailako ikasleek karlismo herrikoiaren aspektu ideologikoak lantzen dituen literatura irakurtzea. Honez gain, esku hartze fase honen hasieran komentatu dugunez, galdetegiak bi taldetan pasatu genituen, bata tutoretza orduetan eta bestea gizarteko klaseetan. Lehen esan bezala, lehenengo talde horretan taldeak erakutsi duen jarrera ez da izan bigarrenak erakutsi duena bezain serioa, eta lehen talde horretan, hain zuzen ere, eman dira baiezko erantzun gehien.

Faktore hauek kontuan hartuta, nekeza egiten zaigu ikasleei kurtsuan zehar gu lantzen ari garen ideia hau klasean aipatu izana sinestea. Nahiz eta, esaten ari garen bezala, galdera honen planteamendu eta ulermenarekin arazo batzuk egon diren, ezezkoek gehiengo estu bat lortu dute, eta aipatu ditugun hiru faktore hauek kontuan hartuta, uste dugu emaitzak esanguratsua izaten jarraitzen duela.

Laugarren galderarekin jakin nahi izan dugu ea ikasleen ustez aurreko galderan aipatzen genuen ideia hori beraiek klasean normalean lantzen dituzten iturrietan agertu zitekeen edo ez. Honekin gure galdetegiak ikasleek iturrien izaerari buruz dituzten iritziak edo pertzepzioak aldatu ditzaken edo ez ikusi nahi genuen. Iturri bat erabilgarria izan daiteke lantzen ari garen gaiaren edo honi egiten dizkiogun galderen arabera. Oraingoan, gure asmoa ikasleak horretaz jabetu diren ala ez ikustea izan da, eta horretarako honako galdera egin diegu:

4. Uste al duzu hau klaseetan erabili dituzuen iturrietan agertu zitekeela?




Baiezkoa izan da aukera hautatuena (27) oraingo honetan. Horren atzetik, ezezkoa 13 ikaslek aukeratu dute. Nahiz eta galdera bai/ez erantzuteko planteatu dugun ikasleek beste 3 erantzun desberdin eman dizkigute. Hauetako zazpiren kasuan, eman dituzten erantzunak ikusita, argi dago ez dutela galdera guk egiten genuen zentzuan ulertu (galdera honetan ez genuen zergatik galdetzen, baina ikasle batzuek argumentatu nahi izan dute, eta argudiaketa hauetan ikusi dugu galdera ez dutela guk nahi genuen bezala ulertu). Hiru ikaslek “baliteke” erantzun digute, eta beste hiruk, aldiz, ez dakitela edo zuzenean ez dute erantzun.

Aurreko galderako erantzunetan ulermen arazo batzuk somatu baldin baditugu, logikoki honakoan ere antzeman ditugu, lehengo galderan aipatzen genuen ideia horri buruz galdetu diegu eta. Honakoan gainera, eta ikasle batzuen erantzunak ikusita, uste dugu ikasle batzuk galdera beste zentzu batekin ulertu dutela. Galdera honekin jakin nahi genuena zen ea ikasleen iritziz posible izango zen aipatu dugun ideia hori beraiek erabiltzen dituzten iturrietan agertzea. Batzuk, aldiz, ideia hau bertan agertzea komenigarria izango zen ala ez galdetzen ari ginela ulertu dute, eta horrek azaltzen du baiezko erantzunen kopuru altua, ez baitu zentzurik aurreko galderari “ez” erantzun eta gero honakoan baiezko erantzuna ematea.

Gorago esan dugun bezala, galdetegi honen bigarren blokean, zeinak azkenengo bi galderak hartzen dituen, ikasleei behin iturri hauek erabili eta gero hauen gaineko galderak egin dizkiegu. Aurrekoetan, ikasleei jarri dugun bertso sortaren inguruko iritziak eskatu dizkiegu. Azken bi galdera hauek, berriz, ez dute zerikusirik bertsoekin, edo asko jota zeharkako erlazio bat dute, hauek erabili eta gero ikasleek hauek iturri gisa nola baloratzen dituzten jakin nahi izan dugulako.

Helburu honekin, bosgarren galderan, ikasleei iturri batzuk jarri dizkiegu hauetatik beraien iritziz herri mentalitateak aztertzeke aproposenak direnak aukeratzeko. Honez gain, beraien aukerak arrazoitzeko eskatu diegu. Iturri multzoan, beraiek erabiltzen dituzten ohiko iturriak sartzen saiatu gara hauek gure iturriekin kontrastean jartzeko.


5. Iturri historiko hauetatik, zeintzuk uste duzu islatu dezaketela hobeto klase apalenen pentsamendua? Zergatik?



Ikasleek erantzun anitzak eman dituzte oraingo honetan, baina gehienek aukera berdintsuak egin dituzte. Bertsoak izan dira gehien aukeratutako erantzuna (44), eta honen ondoren legediak (23). Hondakin materialak (13) eta txanponak eta buruzagi militar baten proklama izan dira hurrengo aukera (12 bakoitzak), eta, azkenik, mapak (6). Ikasle bakar batek ez dio galderari erantzun. Zergatiei dagokienez, bertsoak ez aukeratzearen alde argumentu deigarri bat aurkitu dugu. Ikasle baten arabera, jendeak diruagatik borrokatzen zuen eta ez zitzaizkion bestelako arrazoiak inporta. Ikasle honek, beraz, karlismoaren edo liberalismoaren alde borrokatzeko motibazio ekonomiko zuzenetan bakarrik sinesten du. Gainontzekoan, gehienek ez dute inolako argumenturik eman. Bertsoak aukeratu dituztenak hauek klase apaletako kideak egiten zituztelako, galtzaileen iritziak ere islatzen zituztelako eta modu honetan beraien ideiak modu askeago batean plazaratu ahal zituztelako egin dutela argudiatu dute. Ikasle batek dioenez, iturri batek beste batek eman ez dituen ideiak ekarri ahal ditu, eta beste baten iritziak, bertsoek herritarren pentsamenduari, ohiturei, zaletasunei eta baita ikuspuntuei buruzko informazioak eman ahal dizkigute.

Azkenengo galdera ere iturrien inguruan planteatu dugu. Honekin bilatu duguna ikasleek bertsoetan agertzen diren ideiak beste iturri batzuetan agertu daitezkeen uste duten ala ez jakitea izan da. Lan honetan zehar aipatu dugun bezala, guretzat iturri hauetan beste batzuetan agertzen ez diren informazioak aurkitu ditzakegu, eta ikasleen honi buruzko iritzia ezagutu nahi izan dugu.

6. Uste al duzu bertsoek beste iturri batzuetan agertzen ez diren ideiak aportatu ditzaketela?



Oraingoan ikasleek ez dute zalantza handirik izan. Aztertzen ari garen 53 ikasleko talde honetatik 47rentzat bertsoek beste iturri batzuk eskaintzen ez dituzten aukerak dituzte, ikuspuntu protagonista eta gai ezberdinak tratatzen dituztelako. Beste 4 ikaslek, aldiz, ez dute uste bertsoek beste iturriek aportatu ez dezaketen ezer ekarri dezaketenik, eta, azkenik, 2 ikaslek ez dakitela esan dute edo zuzenean ez diote galderari erantzun. Nahiz eta oraingo galderan ikasleei ez zitzaien beraien aukera argudiatzeko eskatzen, batek baino gehiagok hau hautatzeko izan dituen arrazoiak azaldu ditu, gehienetan aurreko galderan emandako oso antzekoak izan direlarik.

BIGARREN GALDETEGIARI BURUZKO ONDORIOAK

Lehen galderak eman dituen emaitzetatik bi ondorio nagusi atera ditzakegu. Lehenengoa, ikasleek, iturri alternatiboak erabiltzen badituzte, ideia ez hain onartu edo “ofizialetara” heltzeko aukera daukatela da. Honela lan eginez gero, ikasleek lehen pertsonan ikus dezakete lehen mailako iturri baten balioa, honek ordurarte planteatu gabeko ideiak iradoki diezazkielako. Iturriek ematen dituzten aukera hauek ondo barneratzen badituzte, ikasleek hauen aniztasun eta erabilera normalizatu dezakete, eta honela, ikertzeko gaitasun handiago bat garatu, zeinarekin, historiaren ikuspegi zabal eta konplexuago bat bereganatzen duten bitartean, euren pentsamendu kritikoa garatuko duten, edonon “ematen” zaien historia galdera eta posizio batzuetatik abiatuta eta iturri jakin batzuetan sostengatuta dagoela ulertuko baitute.

Galdera honen erantzunei erreparatuta atera dezakegun beste ondorioa bertsoak, beraien zuzeneko izaeragatik (mezuari dagokionean) ikasleentzat iturri erabilgarri eta ulergarriak direla da. Bertso hauen kasuan, adibidez, ematen diren iritziak lerro gutxi batzuetan eta modu zuzen batean ematen dira. Iturri bezala, hauek testuinguru egoki batean jarrita eta erabiltzen duten hizkuntza menperatuz gero, irakurtzeko errazak dira, klasean erabiltzen diren beste iturri batzuekin (adibidez, konstituzio batean agertu daitezkeen hainbat artikulua, zeinak, beraien izaera eta hizkera “legalagatik” irakurtzeko zailak eta astunak izan daitezkeen) alderatuz. Iturri tradizionalago hauek ere baliagarriak dira, baina, gure ustez, guk proposatzen ditugun iturriekin txandakatuz gero, klaseek orokorrean emaitza hobeagoak eman ditzakete.

Aurreko galderako lehen ondorioa berrestez gain, bigarren galderan eman diren emaitza eta erantzunak gogoeta batera eramaten gaituzte. Bigarren galderaren planteamenduan azaldu dugunez, gure intentzioa ikasleei “grisetan” pentsaraztea izan da, eta honek eman dituen emaitzak eta lortu ditugun erantzunak ikusita uste dugu hori lortu dugula. Pentsatzeko modu hau gai askorekin lantzen bada, azkenean ikasleak pentsatzeko modu hau sistematizatuko du, eta honek gure ustez oso garrantzitsua den kritikotasun bat garatzen lagunduko dio.

Ikasleen gehiengo zabal batek, iturriak modu kritiko eta autonomo batean baloratu eta gero, uste izan du karlismoaren parte zirenetako batzuk behintzat ez zutela beraiei irakatsi dizkieten ideia “ofizialen” %100arekin bat egiten. Honez gain, erantzun hau justifikatzen duen zergatiak ere eman dituzte, eta pausu horretan, iturrietan zuzenean edo zeharka oinarritutako erantzunak eman dizkigute. Erantzun hauek guztiak iturriekin edukitako testuinguruan jartzearen eta lanketa baten ondoren bakoitzak egin duen balorazio pertsonal batean oinarritu dira, eta, beraz, esan dezakegu iritzi edo ezagutza berri hauek beraiek eraiki dituztela guk eman dizkiegun erremintetatik abiatuta.

Gorago aipatu dugunez, hirugarren galderan planteamenduaren eta ulermenaren inguruan arazo batzuk eman direla uste dugu. Agian ikasleren batek benetan pentsatuko zuen klasean aipatu izan dietela karlista apalenetako batzuek liberalismoaren printzipioren batekin puntu bateraino ados egon zitezkeela, baina, hala izanda ere, uste dugu hau gutxiengo txiki bat izango zela. Kontuan hartuta ziurrenik baiezko erantzuna eman dutenek galdera ez dutela behar bezala ulertu (edo hau ez zaiela behar bezala planteatu), uste dugu esanguratsua dela ikasleen gehiengo batek ideia hau lehenago aipatu ez zaiela pentsatzea. Honek frogatzen du iturri hauek orain arte kurrikulumean

agertu izan ez diren ideia eta ikuspuntu berriak ekarri ditzaketela, eta honek ikasleak historia modu konplexuago baina gure ustez egokiago batean ulertzera eraman ditzakeela.

Ez da erraza laugarren galderaren planteamenduan egon diren arazoak eta akatsak kontuan hartuta honek eman dizkigun erantzunetatik ondorioak ateratzea. Argi dago, aurreko eta hurrengo galderako erantzunak kontuan hartuta, gehienek galdera ez dutela ulertu guk nahi genuen bezala, honetan emandako erantzunak besteekin kontraesanean sartzen direlako. Ikasle gehienek esan dutenez, ideia hau ez zaie klasean aipatu, eta, horrez gain, bertsoak klase apalenen mentalitateak aztertzeko tresna apropos bat direla uste dute. Beraz, ez dugu uste benetan uste dutenik ideia mota hau beraiek erabiltzen dituzten iturrietan agertu zitekeenik, bertsoak berauek baino aproposagoak direla uste baitute eta hauek ez dituztelako erabiltzen. Uste dugu galdera ondo planteatu eta ulertu ezker, erantzunak oso bestelakoak izango zirela eta gehienek ezezko erantzuna emango zutela, gure ustez ideia mota hau nekez agertu daitekeelako klasean erabili ohi diren iturrietan, eta uste dugulako ikasleak ere honetaz jabetuko zirela.

Bosgarren galderan jaso ditugun erantzun eta argudiaketek bertsoek klasean iturri gisa duten potentzialitatea frogatzen dute. Iturriekin egindako saiakera labur batean, ikasleek ikusi dute bertsoak tresna eraginkorra izan daitezkeela herri mentalitateak aztertzerako orduan, eta batzuk, gainera, ikuspegi hau modu koherente batean argudiatzeko gai izan dira. Gainera, aukeratu ez dituztenek argumentu oso gutxi eman dituzte beraien aukera argudiatzeko, eta honek, beste aukera hautatu dutenekin alderatzen badugu, oraindik balio handiagoa ematen die klasean erabiltzeko erabilgarriak izan daitezkeen iturri gisa.

Azken galderarekin, goian aipatutako potentzialitatea berriz ere frogatzeaz gain, ikus dezakegu ikasleek bertsoek gai hau baino gehiago ikertzeko balio dezaketela ulertu dutela. Ikasleen %88,68aren ustez bertsoak beste iturri batzuek ekarri ez ditzaketen ideiak eskaini ditzakete. Ez diegu hau gai konkretu baten inguruan galdetu, baizik eta orokorrean, eta honek eta lehen aipatu dugun karlismoari buruzko ikuspuntu berritzaile horrek (liberalismoaren berdintasunaren printzipioari buruzkoa) frogatzen dute ikerketan ez ezik, hezkuntzan ere bertsoek ekarpen interesgarri eta aberasgarriak egin ditzaketela iturri historiko bezala.

ONDORIO OROKORRAK

Azken atal honetan, lan hau egin eta gero atera ditugun ondorio orokorrak azalduko ditugu. Jadanik garatu ditugu hainbat ondorio bi galdetegiaren amaieran, eta orain azalduko ditugun ondorioekin hasi baino lehen, gainera aipatuko ditugu garrantzitsuenak, gure ustez atal honetan ere egon zitezkeelako eta hau egitea garrantzitsua delako lanak ekarri duenaren ikuspegi orokorrako bat edukitzeko.

Lehen galdetegia iturrien laguntzarik gabe egin genuen, eta hainbat ondorio utzi zizkigun. Lehen bi galderetan gure interes gai nagusia iturriak izan ziren, eta hauek dira hauei buruz egindako galderetatik atera genituen bi ondorioak. Alde batetik, ikasle gutxiak uste dute bertsoak iturri historikoak izan daitezkeela hauekin inongo kontakturik eduki baino lehen. Bestalde, iturri berrien erabilerak arloa bera eta ikasleek honekiko duten ikuspegi hobetu dezakeela, eta baita ikasleen ohituretan influentzia positiboa eduki.

Hurrengo lau galderetan, aldiz, ikasleei karlismoaren inguruko hainbat aspekturi buruz galdetu genien hauek fenomeno hau ulertzeko duten modura hurbiltzeko asmoarekin. Ikasleek karlismoaren inguruko hainbat ikuspegi oker dituzte. Ez dira jabetzen klasearteko mugimendu bat zela (ez dute bere osaketa soziologikoa ondo ezagutzen) eta ez dakite hau ideologikoki kokatzen (XIX. mendeko mugimendu eta pentsamendu politikoak nekez ulertzen dituzte eta askotan ez dituzte hauen oinarritzko ideiak ezagutu eta ulertzen). Oraingo eta lehenengo historiografiaren eraginari buruz, ikusi genuen karlismoaren berritze historiografikoak ekarri dituen ideia asko pixkanaka hezkuntzan sartzen ari direla (batez ere gerraren kausen eta motibazioen gain), baina interpretazio tradizionalagoek oraindik pisu handia izaten jarraitzen dute eta gehien bat eliteei dagozkien arrazoiek toki handiagoa izaten jarraitzen dute. Gure ustez, karlismoaren gain ikasleengan somatu ditugun gabezi hauek Historia irakasteko metodo tradizional batzuen ondorio dira, eta iturri berritzaileak erabiltzeak, beste hainbat neurriren artean, gabezi hauek gaitzen lagundu dezake.

Bigarren galdetegia, berriz, iturrien laguntzarekin egin genuen, eta hau aztertu eta gero ere hainbat ondoriotara iritsi ginen. Lehenengo lau galderak guk emandako bertso sortaren inguruko iritziak bilatzen dituzte (karlismoarekin estuago erlazionatuta daude, nolabait esateko), eta, azkenengo biek, aldiz, guk erabilitako iturrien inguruko inpresio orokorrak bilatzen dituzte. Hala

ere, bi galdera moten kasuan atera ditugun ondorioek erlazio zuzenagoa dute iturriekin karlismoaren gaiarekin baino. Azken finean, karlismoaren gaia iturri hauek baliagarriak diren ala ez eta zer abantaila izan ditzaketen frogatzeko erabili dugu, hau baitzen lanaren helburu nagusia. Lehen mailako iturrien erabilerak ikasleak interpretazio berriak ezagutzera eraman ditzakete. Honek hauen garrantzia behar den bezala baloratzera eraman ditzake, eta, aldi berean, beraien ikertzeko gaitasunak hobetzearekin batera, Historiarekiko ikuspegi interpretatiboago bat eta jarrera kritikoago bat garatzera. Iturri hauek modu egoki batean erabilia, ikasleek euren ezagutzen eraikuntzan protagonistak izatea lor dezakegu.

Bertsoen inguruan, zeinak oso gutxitan erabili izan diren iturri historiko bezala, eta are gutxiago testuinguru didaktikoetan, honako ondorioak atera ditugu. Bertsoak ikasleentzat ulertzeko errazak diren iturriak dira, eta iturri tradizionalagoen lana hobetu edo osatu dezakete, aipatu zaizkien ideiak agertuz, edo, ikerketa honen kasuan bezala, ideia berriak ekarriz. Bertsoak, eta, orokorrean, lehen mailako iturrien erabilerak, ikasleak euren iritziak gehiago erlatibizatzen eta gauzak modu konplexu eta ez sinplistetan baloratzera eraman ditzake.

Ikasleek lehen pertsonan esperimentatu dute (hala diote 5. eta 6. galderetan jasotako erantzunek) iturri hauen potentzialitate didaktiko eta historikoa. Saio labur bat eta gero, ikasleek uste dute bertsoak tresna egokiak direla herri mentalitateak aztertzeko, eta, honez gain, uste hau argumentuekin defendatzeko gai dira. Honez gain, ikasleek uste dute bertsoak gai gehiago ikertzeko ere baliagarriak izan daitezkeela.

Hauek izan dira, gutxi gorabehera eta modu labur batean azalduta, gure bi galdetegiak utzi dizkiguten ondorio nagusiak. Orain bestelako ondorio batzuk azalduko ditugu, gehien bat iturriekin eta ikasleekin zerikusia dutenak, nahiz eta beste gai batzuk ere landuko ditugun.

Iturriei dagokionez, uste dugu guk egindako esperientzia txiki honen ondoren, hauen potentzialitate didaktikoa frogatua geratu dela. Hau ikasleek eman dizkiguten erantzunetan ikus dezakegu. Marko didaktikoan ikusi dugunez, Genma Tribò bezalako egileek ikerketa modu osagarrian geletara sartzearen onurak aldarrikatzen dituzte. Guk lan honetan egin dugun iturrien erabilera honekin karlismoaren berrikuntza historiografikoak egin dituen planteamendu batzuk ikasgelan sartzea lortu dugu (orain arte, gure ustez behintzat, askotan gela kanpoan eta historialarien zirkuitu itxian geratu dena), eta honelako saiakerak modu orokortu eta sistematiko

batean egingo balira, gure ustez gaur egun askotan ematen diren baino ikaskuntza prozesu aberasgarriagoak lortuko lirateke.

Berrikuntza historiografiko hau geletara sartzeak Historiari buruzko ikuspegi interpretatibo, eta orokorrean, zabalago bat sartzea suposatzen du. Gure ustez, historiografiaren ikuspegi berri eta anitz hauek (ez karlismoaren gaian bakarrik, baizik eta orokorrean) geletara sartzea komenigarria litzateke. Genma Tribók defendatzen duenez, hezkuntzaren eta ikerketa historikoaren “munduen” arteko elkarlan estu batek bien sendotzea ekarriko luke ondorio bezala. Gure ustez, ordea, honek zeharka historialarien eta gizartearen artean dagoen distantzia handiegia txikituko luke, honela, lehengoek dituzten eztabaidak eta arazoak sektore sozial gehiagorengan eragina izango zutelarik. Eta baita, noski, Historiaren izate berri bat jendartean zabaltzeko, eduki batzuen transmisio sinpletik urruntzen dena konplexutasuna, eztabaida, gogoeta pertsonala eta interpretazio anitzetara hurbiltzeko. Honelako saiakerek, gure ustez behintzat, lehenago aipatu dugun Joan Pagès-ek bezalako adituek kritikatzin duten, eta, zoritxarrez askotan ematen den Historiaren transmisio lau eta linealarekin apurtzen lagundu dezakete.

Guretzat lan hau iturri mota honek eman dezakeenaren adibide txiki bat besterik ez da, uste baitugu bertsoekin Euskal Herriko Historia Garaikideko hainbat gai eta garai desberdin ikertu daitezkeela, eta, nola ez, hauek hezkuntzan ere erabilgarriak izan daitezkeela, kontuan hartuta gaur egun kontserbatzen diren bertso eta bertso paper historikoen bolumen handia. Orain arte, bertsoak eta bertso paperak oso gutxitan izan dira ikerketa historikorako erabiliak (guk ezagutzen ditugun salbuespen nabarmenenak lan honetan aipatzen diren Jurgi Kintanaren eta Antonio Zavalaren lanak dira. Azken honek bertsoei buruzko hainbat liburu argitaratu zituelarik), eta, didaktikan, guk dakigunez, ez dira ikerketa sakonak egin iturri hauen potentzialitateei buruz. Agian, irakasleren batek noizbait erabili izan ditu honelako iturriak, baina erabilpen hauek, eman badira behintzat, ez dute ikerketa didaktikoaren mundura jauzia egin, eta, beraz, ezezagunak edo ikusezinak izaten jarraitzen dute irakasleen gehiengoarentzat.

Bertsoen erabilera honekin lortu duguna ideia berri baten transmizioaz baino askoz haratago doa. Transmisio hori baino, guretzat garrantzitsuagoa izan da hau nola transmititu den, edo hobeto esanda, ezagutza edo ideia hori nola eraiki den ikaslearen eta gure arteko hartu emanean. Gure papera iturriak klasera eraman eta hauei marko ulergarri bat ematera mugatu da, hau da, ikasleari beharrezkoa zuen laguntza ematera. Hortik aurrera, ikaslea izan da eman den ikaskuntza prozesu txiki horren protagonista. Hau pentsatzera bultzatu dugu eta bere iritziak

defendatzeko argumentuak ematera, eta uste dugu, nahiz eta formatu txikian izan den, honekin ikaslearen hainbat gaitasun kognitibo (ulermena, gogoetarako gaitasuna, argumentatzeko gaitasuna, ikuspuntu desberdinak baloratzea,...) abian jarri ditugula. Zentzu honetan, uste dugu saiakera hau aurrera eramatean, lehenago aipatu dugun Rousseau-ren aipuan agertzen diren planteamenduei jarraituz egin dugula. Hau da, ikasleei ezagutza bat bere horretan eman beharrean, honetara beraien kabuz iristeko aukera eman diegu, beharrezkoak ziren erremintak ematera mugatu baikara.

Ikasleen prozesu intelektual hauek guk uste genuena baino haratago joan dira kasu gutxi batzuetan. Hau batik bat aipagarria da ikasle batek eman digun erantzun batean. Bigarren galdetegiko bigarren galderan ikasleei galdetu diegu ea uste zuten karlista batzuk liberalismoaren ideia baten aspektu batzuekin konforme egon zitezkeen ala ez. Ikasle batek baietz erantzun digu, eta honakoa gehitu du: “konforme egon zitezkeen, berdintasunaren ideia, batez ere herri klaseetan, oso erakargarria delako, nahiz eta karlista izan”. Erantzun hau ematerako orduan, ikasleak bere gaiaren aurretiko ezagutzak guk emandako iturriekin uztartu ditu. Ikasleak bazekien gizarte estamental batean liberalismoak proposatzen duen “berdintasunaren” ideia ez zela teoriarik ere existitzen, eta, bestalde, liberalismoaren aurkako iritziak dituen norbaitek (kolektibo handiago bat ordezkatzeko duena) jarritako bertsoak irakurri eta ulertu ditu. Bi aspektu eta informazio hauek kontuan hartu eta gero, eta hauek hierarkizatu ondoren, bere azkenengo erantzuna eman du. Beraz, ikasle honek eman duen erantzuna iturrien erabilera batetik abiatu da, baina honek emandako informazioa berak zuenarekin uztartu du, eta honela berak emandako iritzia iturrietatik haratago joan dela esan dezakegu.

Prozesu hauek martxan jartzean ikaslea estimulatzen egiten da, eta pasibotasun egoera baten (klase magistral ez parte hartzaile batean) erakusten duena baino jarrera intelektual aktibo, kritikoa eta eraikitzaileago bat lortu dezakegu bere partetik. Guk pasatako bi galdetegietan galdera gutxi batzuetan beraien aukerak argudiatzeko eskatu diegu. Bigarren galdetegiaren azken aldera, ikasleak espontaneoki eta guk eskatu gabe hasi dira euren erantzunak arrazoitzen. Hau da, ikasleak eskatu zaiena baino gehiago pentsatzen hasi dira, eta gure ustez honetan eragina du beraien iritziak emateko eman diegun askatasunak. Ikasleei ikasten dutenaren zentzua eta zergatia ulertzea gustatzen zaie, eta ikusi dugunez, berdin gertatzen zaie euren iritzien kasuan.

BIBLIOGRAFIA

- AIZPURU, Mikel, DELGADO, Ander, OSTOLAZA, Maitane. "Pueblo, política y nación en el País Vasco (1833-1936): Una aproximación a través de los *Bertso-Paperak*". ESTEBAN DE VEGA, Mariano, DE LA CALLE VELASCO, M^a Dolores (Eds.) "*Procesos de acionalización en la España Contemporánea*" -ren barruan. Ediciones Universidad Salamanca. 2010.
- ANGUERA, Pere. "Sobre las limitaciones historiográficas del primer carlismo" *Ayer-en*, 2. Zenb, 1991.
- ANGUERA, Pere. "¿Por qué eran combatientes carlistas?" *Vasconia-n*, 26. Zenb, 1998.
- GUIBERT NAVAZ, Esther, MAJUELO GIL, Emilio. *Tratamiento didáctico de las fuentes históricas. Las harineras de Navarra durante el primer tercio del siglo XX. Un taller de investigación de Historia Local para la Educación Secundaria*. Grupo Editorial Universitario.
- GUTIÉRREZ SÁENZ, Damián. *Las artes populares en la didáctica de la Historia: cine, literatura y música*. (Master amaierako lana).
- KINTANA GOIRIENA, Jurgi. "Lehen gerra karlista bertsoen argitan. Foruak eta erlijioa hitz neurtuetan (1823-1840)". *Uztaron*, 30. zenb. 1999.
- LÓPEZ ZAPICO, Misael Arturo. "El uso de canciones como recurso en la enseñanza de la Historia Económica Contemporánea". BRINGAS GUTIERREZ, Miguel A., CATALÁN MARTÍNEZ, Elena, TRUEBA SALAS, Carmen, REMUZGO PÉREZ, Lorena (Eds.) *Nuevas perspectivas en la investigación docente de la historia económica*-ren barruan. Editorial Universidad Cantabria. 2016.
- MARTÍNEZ DORADO, Gloria, PAN-MONTOJO, Juan. "El primer carlismo, 1833-1840" *Ayer-en*, 38. zenb. 2000.
- NAGORE FERRER, María. "Carlismo y música". *Imágenes, el carlismo en las artes, III. Jornadas de estudio del carlismo*. Gobierno de Navarra, 2009.
- PAGÈS, Joan. "Enseñar y aprender ciencias sociales en el siglo XXI: reflexiones casi al final de una década". *Investigación en Educación, Pedagogía y Formación Docente, II Congreso Internacional*. Libro 2, Medellín. Universidad pedagógica nacional, Universidad de Antioquia, Corporación interuniversitaria de servicios. 140-154. 2009.

- PÉREZ LEDESMA, Manuel. “Una lealtad de otros siglos (en torno a las interpretaciones del carlismo)”. *Historia Social* en, 24. Zenb, 1996.
- PIRALA, Antonio. *Historia de la Guerra Civil y de los partidos liberal y carlista. Tomo I: desde la Regencia de Urgel hasta la dimisión de Zumalacárregui*. Ediciones Turner, S.A., 1984.
- SÁENZ DE VIGUERA ERKIAGA, Luis. “Bertso-paperak carlistas y lo popular reaccionario”. *Res Pública*-n, 13-14.zenb. 2004.
- SANTISTEBAN, Antoni, GONZÁLEZ, Neus, PAGÉS, Joan. “Una investigación sobre la formación del pensamiento histórico. XXI Simposio internacional de didáctica de las ciencias sociales. “Metodología de investigación en didáctica de las ciencias sociales.
- TRIBÓ TRAVERÍA, Gemma. *Enseñar a pensar históricamente. Los archivos y las fuentes documentales en la enseñanza de la Historia*. Universitat de Barcelona. Horsori editorial. 2005.
- URRUTIKOETXEA, Josetxo. “Karlismoa”. Elkar, S.A., 1984.

Bestelakoak

- GARCÍA SEBASTIÁN, M. GATELL ARIMONT, C. *Gizarte zientziak. Historia. Lurra. (Berria)*. Vicens Vives.
- Lehen mailako iturriak (bertsoak). KM Liburutegia. Funts gordeak. Antonio Zavala funtsa. “*Contsituziñoko damiaren asmuak zortzikuan*”. Karlitaden 1. kutxa, 6. karpeta. A.Z.D.2.5.2.1. Honen barruan lehen karpetatxoan, 5-6. orrietan.
- MUNDU GARAIKIDEAREN HISTORIA. Santillana Zubia. Ezagutu Saila. Ekin Proiektua.
- Nafarroako Foru Komunitateko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Kurrikuluma. NAO (24/2015 Foru Dekretua, apirilaren 22koa, 2015eko Nafarroako Aldizkari Ofiziala uztailaren 2koa).

ERANSKINAK

Eranskinen tamaina handiegia litzateke lan honetan sartzeko, bertan lan hau egiteko erabili ditugun 108 galdetegiak biltzen baitira. Beraz, hau beste artxibo batean igoko da Nirelkasgelategia plataformara epaimahaiko kideek hauek ikuskatu ditzaten.